

TREBIÑU Arabian normaltasunez bizitzeko saiakera berria

- **Ehiza** Ehiztariak eta ekologistak instituzioei kontu eske
- **Itziar Mendizabal**, dantzaria «Gurea bizimodu sakrifikatua dela entzutean gaitzitzen naiz»
- **Detroit** Hiri eredu berria, eroritakoa jasotzeko
- **Siria** Kazetarien bahiketen alde ezkutua
- **Joan Huguet**, Balearretako PP «Hiru eleko eredua ezartzeko modua hanka-sartzea da»

ARGIAren eskutik

SDB kantaldirako sarrerak preziorik onenean

SDB

SORTUKO DIRA BESTEAK 2013

MIKEL URDANGARIN PETTI
OLATZ PRAT ESTITXU PINATXO
ALEX SARDUI MIXEL DUCAU

URRIAK 26 HERNANI
UDAL PILOTALEKUA-21:30etan

Sarrera:

12€

(ARGIAren eskatuta)



Eskuratu zure sarrera ARGIAren:

☎ 943 37 15 45 / denda@argia.com

* Sarrerak amaitu arteko eskaintza mugatua


A&M KULTUR
PROMOTORA
619421153





Azaleko argazkia:
RAUL BOGAJO
/ARGAZKI PRESS
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egilek aitortu eta baldintza beretan eginaz gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iriztiak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko urriaren 20a, 2.387. zenbakia

ASTEKO GAIA

EHIZA Kudeaketagatik mokoka. JON TORNER / 4

PERTSONAIA

ITZIAR MENDIZABAL: «Artistak gara, ez gimnastak». SUSTRAI COLINA / 10

GAIK

DETROIT Hiri bat harian. ANDER GORTAZAR BALERDI, JACEK MARKUSIEWICZ / 15

AUZOLAN ESPERIENTZIAK Ibaiko zaborra biltzea, kirola eta artea uztartuz. LIDE HERNANDO / 18

IRITZIAREN LEIHOA

MARMOTAREN GARAIA GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR / 20

INURRIAK ETA EULI HANDIAK! IÑAKI MURUA / 22

EUSKAL LOMCE-RIK EZ, ESKERRIK ASKO

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Lampedusa. AMETS ARZALLUS / 22

BERTSO BERRIAK Werti intsumisioa.

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 23

ERDIKO KAIERA

MUSIKA 1913-2013, Rudolf Trebisch-en lekukotasun soinuadunak. MIEL A. ELUSTONDO / 24

JORGE JAUREGI: «Publikoaren begirada beharrezkoa da dantzalana erabat osatzeko». MYRIAM GARZIA / 26

LITERATURA AMAIA ALVAREZ URIA / 28

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 29

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 30

ALEA Taula beltza. MYRIAM GARZIA / 31

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 32

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 33

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

TERMOMETROA

TREBIÑU Madrilgo Kongresura, Gasteizko Legebiltzarrean barrena. MIEL A. ELUSTONDO / 35

SIRIA Bahiketen puzzle osatugabea. ANDONI LUBAKI / 38

JOAN HUGUET: «Negoziaziorik gabe TIL hilda dago».

MIQUEL PAYERAS / EL TEMPS / 40

IRUÑEKO HERRI HARRESIA Desobedientziaren bide zaila. LANDER ARBELAITZ MITXELENA / 43

EUSKARABILDUA JARDUNALDIAK Bestelako telebista ereduak interneten daude. ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Naomi Kleinen deia: klimaren krisia jarri ezkeraren ardatz. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Kudeaketagatik mokoka

Hegazti migratzaileen ehiza denboraldia, oilagor edota pagausoena, hasia da Euskal Herri osoan. Lehenago ireki zen basurde eta orkatzena. Zientoka eroriko dira, kolektibo indartsua osatzen baitute ehiztariek. Indartsuegia, batzuen ustez.

| JON TORNER |



MIKEL BARRIOS

EHIZTARIEK lobby sendoa osatzen dutela esango dizute elkarte kontserbazionistek; eta alderantziz, ehiztariek diote ekologisten jarraibideei egiten dietela men administrazioek.

Ehizak, jarduera zinegetikoak, diru piloa mugitzen du, ez dago ukatzerik. Ehiztariez gain –60.000 inguru izango dira gurean–, modu batean ala bestean erakunde, negozio eta kolektibo anitz ukitzen ditu: lekuan lekuko administrazioak (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Pirinio Atlantikoetako departamendua, diputazioak zein udalak), ehiza-barrutien kudeatzaileak, ehiza federazioak eta herrietako elkarteak, arma fabrikak eta saltokiak, turismo zinegetikoa eskaintzen duten bidaia agentziak, ehiza-txakurren inguruko merkatua, natur elkarteak eta animalien eskubideen alde borroka egiten dutenak,

Natura-ingurunean egiten den ehizak bateragarria izan behar du bizi-iturrien babesarekin, eta landa-eremuaren garapen jasangarriarako ildoak ziurtatu behar ditu.

baserritarrak, basozainak, mendizaleak... Ehiztari kolektiboaren barruan, zakurra hartu eta oilagorrak “jauzian” harrapatzen dituztenak daude, uso eta birigarroei postuetan itxaroten dietenak, basurde eta orkatz uxaldietan dabilzanak, legea errespetatzen dutenak eta ezkutuan aritzen direnak... Hamaika interes egon daiteke tiro bakoitzaren atzean.

Hilaren 12an hasi zen oilagorraren ehiza denboraldia Hego Euskal Herrian, baita pagauso, txoloma, birigarro, usapal, eper eta galeperrena Gipuzkoan eta Bizkaian. Araban eta Nafarroan urriaren 1ean ireki zen denboraldia hegazti migratzaileen kasuan, eta azaroaren 1ean hasiko da ehiza xeheko beste espezie batzuen, izan hegazti sedentario (eperra eta faisaiak) zein ugaztunen (untxi, erbi eta azeriena), baldintza zorrotzen pean

hauen kasuan. Basurde eta orkatzena iraileko lehendabiziko astean hasi zen, Ipar Euskal Herrian bezalaxe. Akitania eskualdean iraileko bigarren igandean ireki zen hegaztien ehizaldia. Haien esperoan, milaka ehiztari: 33.000 federatu ditu Nafarroak, 13.000 Gipuzkoak, 2.500 Bizkaia eta 2.000 Arabak. Pirinio Atlantikoen departamenduan, Bearnon eta Ipar Euskal Herrian, 23.000 lizentzia daude.

Balizko milaka boto

“Boto asko daude jokoan”, esan digu Itsas Enara ornitologia elkarteko kide Hector Gonzalezek, gipuzkoar instituzioen ehiza politikaz galdetu diogunean. “Nafarroan 33.000 lizentzia daude, eta horrek esan nahi du 33.000 boto jokoan daudela”, zioen Gurelur talde ekologistako kide Toño Munillak *Nafarroako Hitzan* (2013-01-11): “Politikariei ez zaizkie axola hegaztiak, ehiztariak babesten dituzte. Ehiztariak kudeatzen dute ehiza Nafarroan, norberak bere barrutian; Gobernuak ez du eskurik sartzen. Horregatik, urte osoan ehizatzen dute, pozoia jartzen dute...”

“Beste herrialde batzuetan ehiza errespetatu egiten den bitartean, Gipuzkoak ehizaren aurkako kolektiboen ildoak jarraitzen ditu”, salatu zuen ADECAP-Gazteak Ehiztari eta Arrantzaleen Babeserako Elkarrekin, 2012an Diputazioak ehiza debekatu zuenean Ulia mendian, 2009an Donostiako Udalak eta 2011n Pasaiaikoak eskatu bezala, aisialdirako eta naturaz gozatzeko gune izendatu ostean. Gipuzkoako ehiztariak gogor agertu dira hainbatetan Bilduren kontra.

Ehiza garaian, Nafarroako Gobernuak eta foru aldundiek denboraldi hasieran plazaratzen duten *Ehiza debekualdien aginduari* egiten diote men Hego Euskal Herriko ehiztariak, EAEn kasuan Eusko Jaurlaritzak 2011ko martxoan onartu zuen legea aintzat hartuta.

“Legeak goitik behera datoz”, azaldu digu Bizkaiko Ehiza Federazioko presidente Iker Hildalgok: “Europako zuzentarauak, Espainiako espezie zinegetikoen zerrenda, erkidegoen ehiza legeak, diputazioak... Jaurlaritzarena lege orokorragoa da, eta debekualdien foru aginduak gauza zehatzagoak arautzen ditu: espezie bakoitza ehizatzeo egutegia, ordutegiak, eguneko kupoa...”

2011n Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza sailburu zen Pilar Unzaluren hitzetan, “natura-ingurunean egiten den ehizak bateragarria

izan behar du bizi-iturrien babesarekin, eta landa-eremuaren garapen jasangarrirako ildoak ziurtatu behar ditu, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren osagarri izango den ekonomia-jarduera gisa”. Helburu izanik “ehizak gizartean dituen sustraiak gordetzea eta ehizan aritzen direnek natur ingurunearen kudeaketa iraunkorrean parte har dezaten lortzea”, hainbat puntu bildu du legeak: ehiza espezieen zerrenda, ehiza guneak, arau-haustekak, kalte ordainak, segurtasun distantziak, toki erakundearen parte-hartzea, eta abar. Lege horren PDFa, debekualdien foru aginduak eta bestelako dokumentuak ARGIAren webgunean paratuko ditugu, han-hemen aurkitutako elkarrizketa eta iritziekin batera, ehizaren panorama bere osotasunean.



IKER HIDALGO Bizkaiko Ehiza Federazioko presidentea
MIKEL BARRIOS ADECAP Gazteak-eko ordezkaria

«Basurde eta orkatzak erakusten ari dira ehiza beharrezkoa dela»

BIZKAIKO EHIZA FEDERAZIOAK Bilbon duen egoitzan hartu gaituzte erakundeko presidente Iker Hildalgok (ezkerreko argazkian) eta ADECAP-Gazteak elkartearen Mikel Barrios (argazkian, koinatuarekin, eskuinekoa). Duela hiru urte, oilagorrak “zelatan” ehizatzea legez kanpokoa eta gainerako ehiztarietako errespetu gabea dela azaltzeko kontzientiazio kanpaina abiatu zuen ADECAPek, “jauzian” ehizatu behar delako hegazti hori, zakurrak sastraka artetik aterarazi ostean. Bestalde, usoa urtarilaren 31tik aurrera ehi-



zatu ahal izateko ahaleginetan dabiltzala azaldu digute bi gazteek. Europak 2005ean debekatu zuen kontrapasa, hegaztiak iparraldeko kumaldi lekuetara doazelako bueltan, eta haiek akabatzeak txita kopurua izugarri murriztuko lukeelako. Uso askok, gainera, ezin izaten diote neguari aurre egin, eta etorri baino gutxiago dira bueltan doazenak.

Usoa kontrapasan ehizatu ahal izatea nahi duzue.

Mikel Barrios: Badakigu oso zaila dela lehengoaren moduko kontrapasa itzultzea, garai batean apirilera arte luzatzen zelako. Pagausoa urtarrilaren 31tik aurrera ehizatze-ko beste modu bat bilatu beharko dugu. Hemen oso uso gutxi botatzen ziren, 2.000 inguru. Urtero ia 6 milioi uso pasatzen direla aintzat hartuta, ez da batere kopuru handia. Uso populazioa, gainera, gorantz doa Europa osoan.

Iker Hidalgo: Aukera bakarra usoaren ehizaldia martxora arte luzatzea da, Espainiako zonalde batzuetan egin duten moduan. Frantziako Estatuan ere otsailaren amaiera arte ehiza daiteke. Ez litzateke kontrapasa izango. Kontrapasaren onena martxoa da, baina gutxienez otsaila bukaera harrapatuko genuke.

Legea ez da berdina leku guztietan...

I.H.: Hala da. Agian hegazti bat erkidego batean bota daiteke, eta ondokoan ez. Ez du zentzurik. Frantziako Estatuan animalia gehiago ahal dira ehizatu. Hegazti migratzaile batzuk Ipar Euskal Herrian ehiza daitezke eta Hegoaldean ez; Hendaian bai eta Irunen ez.

M.B.: Espainiako Gobernuak Nekazaritza eta Ingurumen Ministerioa Mendien Legea

Iker Hidaigoren hitzetan, "mendira bizitzera doazen askok ez dute onartu mendiak badituela berezko ezaugarriak: simaur usaina, oilarrak kantuan... eta ehiza".

"Trafiko arazoak eragin eta uztak txikitzen dituzten orkatz eta basurdeen gainpopulazioa kontrolatzeko tresna gara"

Mikel Barrios, ADECAP-Gazteak

ari da lantzen. Ehizaren eskumenak lekuko administrazioenak diren arren, Estatu mailako batzorde batek ehizaldien irekiera eta bukaera datak proposatuko lituzke, eta erkidego guztietakoak parekatu. EAEren kasuan azken hitza diputazioek izango lukete, baina gutxienez gaiak eztabaidatu eta agian zer edo zer mugitzerik izango da.

ADECAP-Gazteak-ek Esperari STOP kanpaina abiarazi du.

I.H.: Legeak espresuki debekatzeaz gain, ehiztariok ez dugu praktika hori onartzen. Oilagor gutxi dago, eta behar den moduan harrapatu behar dira. "Zelatan" ehizatzea errespetu falta da beste ehiztarietarako.

M.B.: Ehiztariak jakin behar dute oilagorrek "zelatan" ehizatzea txarto dagoela. Ez du meriturik. Batzuek traizioz ehizatzen dituzte. Ez da etikoa.

Zerk markatzen du etikoaren marra?

M.B.: Animalia irhesbidea eman behar zaio, eta oilagorren basotik kanpo itxaroten bazaio ez dauka.

Eta pasan datorren usoak bai?

M.B.: Oilagorrek gaur leku batean jaten badu, badakizu ziurrenik bihar ere hara joango dela. Usoak behin pasako dira zure paretik.

I.H.: Oilagorra basotik kanpora ez da ezer. Leku irekietan trankil-trankil doa, zuzenago hegan egiten du, defentsarik gabe dago... Basoan du ezkutatzeko abilitadea. Usoak arriskuaren aurrean altuago egin dezake hegan.

M.B.: "Zelatan" egiten den ehiza eragozteko, debekaturik dago oilagorra jatetxeetan-eta saltzea.

Furtibismoa zigortzen al da?

I.H.: Isun ekonomikoak jartzeaz gain, ehiza baimena kendu ahal dizute 3-5 urterako. Zaintza handiagoa egon beharko litzateke, guarda gehiago, baina krisiak

administrazioak ere kolpatu ditu eta...

"Ehiztariok naturaren oreka bermatzen dugu", entzun dugu maiz.

M.B.: Hala da, trafiko arazoak eragin eta uztak txikitzen dituzten orkatz eta basurdeen gainpopulazioa kontrolatzeko tresna garrantzitsua gara.

I.H.: Ehiztariak fauna urte osoan zaintzen du, gero ehizatu ahal izateko. Ehizarik gabe espezie asko desagertuko lirateke, eperra adibidez. Ekologistek diote natura gelditu izateko, baina gizakia beti egon da naturaren barruan.

Ez doa hura alde batetik eta gu bestetik. Basurde eta orkatzak erakusten ari dira ehiza beharrezkoa dela.

Zergatik dago gainpopulazioa? Haien harrapariak, otsoak adibidez, desagertu egin direlako?

I.H.: Basoak aldatu egin dira, jendeak ez ditu zaintzen. Pinudi eta eukalpto ibilgaitzak paradisua dira basurdeentzat. Otsoa aspaldi desagertu zen arren, ez da hainbeste orkatzik sekula egon. Gehiago da basoen eraldaketagatik.

Basogintza politika aldatzeak lagunduko luke?

I.H.: Agian, administrazioek euren lurretan pinuen ordez zuhaitz autoktonoak, haritz edota pagoak landatuko balituzte mendiak garbiago edukitzeko... Mendi asko pribatuak dira, ordea.

Zer harreman duzue baserritarrek?

I.H.: Baserritarrek, oro har, uxaldi gehiago eskatzen dituzte. Kontua da lehen baserriak ziren asko gaur egun txaletak direla. Mendira bizitzera joan diren askok ez dute onartu mendiak badituela berezko ezaugarriak: simaur usaina, oilarrak kantuan... eta ehiza. Betiko baserritarrek eta hauek diferente ikusten gaituzte.

Umeak ehizara eramatea begi onez ikusten al duzue? Eskopetaz inguratuta daudelako diot.

M.B.: 10 urteko gazteak ehizara joatea ongi dago, eskopetarik erabili gabe, noski. Arau batzuk daude: aitarekin edo osabarekin zoaz, ezin zara 15-20 metro urrundu... Animaliak eta ezagutzen joateko primeran dator.

HECTOR GONZALEZ Itsas Enara ornitologia elkarte

«Ehiza ez da debekatu behar, arrazionalizatu baizik»

2012KO APIRILEAN, ehiza debekualdien foru agindua argitaratu baino lehen, Itsas Enarak eta beste hamabost ornitologia, natura eta ekologia elkarteek 35 orrialdeko dokumentua aurkeztu zioten Gipuzkoako Diputazioari, ehizaren kudeaketari buruzko hainbat proposamen biltzen zituen. Laburrean, dozena erdi eskaera egin zituzten: oilagorren ehiza denboraldia urtarilaren 31n amaitzea, gainerako hegaztien kasuan bezala —gaur egun otsailaren 16an ixten da—, oilagorren ehizaldian astean atseden egun bat edo bi jartzea,



Hector Gonzalezen arabera, “ehiztariena presio talde indartsua da eta horregatik geldirik daude negoziatioak Gipuzkoako Diputazioarekin. Bozka asko daude jokoan”.

ehiza egunaren irekiera ordu erdi atzeratzea, hotz olatuen protokoloa zorrotz aplikatzea, basa faunaren aurkako delituen aurrean Diputazioa eta Ingurumen Fiskaltza elkarlanean aritzea, eta ehizaren aholku batzordean elkarte kontserbazionisten ordezkari batek parte hartzea. Gonzalezek dioenez, 2012-13 denboraldiko foru aginduak ez zuen eskaera bakarria aintzat hartu, ezta aurtengoak ere.

Ehiztariak lobby indartsua osatzen dutela esan zenidan elkarriketa lotzeko hots egin nizean.

Hala da, beste arrazoi batzuen artean horregatik daude geldirik negoziatioak Gipuzkoako Diputazioarekin. Bozka asko daude jokoan. Lehen EAJ zegoen agintean eta orain Bildu. Gauzak desberdinak izan beharko lirartekeela pentsa daiteke, baina Bilduren barruan hainbat alderdi dago eta... Ehiztariena, oro har, presio talde indartsua da, botere ekonomiko handia duena. Diru asko mugitzen duen negozioa da: armagintza industria, ehiza-barrutien kudeaketa, postuen enkanteak...

Ehizaren kudeaketa Ingurumen Sailak hartzea eskatu duzue.

Gaur egun Iñigo Mendiola buru duen Basa Animalien eta Landareen Zerbitzuak kudeatzen —eta laguntzen— du ehiza. Mendietako eta Natura Inguruneke bulegoaren parte da zerbitzu hori, Berrikuntzako, Landa Garape-

EHIZA

neko eta Turismoko Departamentuaren barruan. Ehizaren kudeaketa sail horren barruan sartzeak interes gatazka sortzen du: zur industriaren eta ehiztarien interesak nagusi izan dira, naturaren kalterako. Ingurumen Sailaren esku balego, basa-fauna zorrotzago babestuko litzatekeela uste dugu.

Lurraldeko ehiza-batzordea dago.

Kontsultarako organoa da. Diputazioak, ehiza federazioak eta Aranzadi elkarteak osatzen dute. Oilategi berean jabea eta azeria sartu dituzte. *Ehiza debekualdia* argitaratu aurretik elkartzen dira. Gehienetan ehiztarien desioei egiten die men Diputazioak. Agian ez die kontrapasa baimenduko, baina oilagorraren ehizaldia luzatuko dute. Aranzadi entzule hutsa da, ez du presiorik egiten, zientzia elkarte baina, ez kontserbazionista. Noizbait eskatu izan du ahotsa guri emateko, baina ez diote jaramonik egin.

Zuk ez duzu ehiza debekatzeko eskatzen.

Kontserbazionisten artean korrante desberdinak daude. Nire ustez ehiza ez da debekatu behar, arrazionalizatu baizik. Esaterako, basurde eta orkatz uxaldiak arriskutsuak dira, ez soilik ehiztariantzat, baita mendizale eta txirrindularientzat ere. Segurtasun-eremua hobeto markatu beharko litzateke, ehiztari batzuek uste baitute mendia euren dela. Iaz 1.000 basurde ehizatu ziren Bizkaian. 4.000 tiro botako ziren gutxi gorabehera; bada zer-bait. [2012-13an 950 orkatz hil zituzten Gipuzkoan; eta 930 basurde, aurreko urtean baino 200 gehiago].

Beharrezkoa al da hainbeste basurde akabaztea?

Gizakia basoa abandonatzen ari da, eta gainera basurde eta orkatzek ez dute harraparirik inguruan. Foru Aldundiak otsoak jazarri zituen, jarduera ekonomikoak (Idiazabal Latxa) eskatzen zuelako ardiak mendian libre

Uso ehiza Nafarroan

4.000 postuetako batzuen kudeaketa herriko ehiza taldeen esku uzten dute udalek (ehiza soziala egiteko), eta beste batzuk enkantean ateratzen dira. 180 euro ordaintzen dira batzuegatik, eta 15.000 eurora hel daitezke preziatuenak, Baztango Kintokoak edo Luzaide-Gabarbidetako kasu. Datu ofizialik ez dagoen arren, garai batean 100.000 uso ehizatzen zirela uste da, baina gaur egun ez dira hainbeste, uso askoz ere gutxiagok zeharkatzen dituztelako Pirinioak, neguak hain gogorak ez direlako eta Europako beste zonalde batzuetan bazka gehiago dutelako.

ibiltzea. Etengabe esku hartutako natura ez da natura. Animaliek kalterik egin ez dezaten kontrolatzeko bide bakarra ehiztariak baldin badira, ekosistema zuzen ez dagoenaren seinale. Ez naiz esaten ari ehiztariak uxaldiak egin behar ez dituztenik, baina orekaren bizi-raupenerako bermatzaile izendatzea... Zenbat orkatz eta basurde dago Gipuzkoan eta zenbat hiltzen dituzte? Diputazioak erantzun beharko lituzke halako galderak. Ehiztariak ez dute gaitasun teknikorik erantzuteko. Orkatz eta basurde kopuruaren arazoa da oraindik ez duela herrialdeak onartzen duen muga gainditu. Horregatik doa gorantz. Herrialdeak onartzen dituen mugak ez datoz bat gizakiek jarritakoekin.

Oilagorraren ehizari dagokionez, atsedeen egunak jarri beharko liratekeela diozue.

Basoan gorde ohi da oilagorra, egunero leku berean hartuko du atsedea, eta ehizatzeak aukerak handitu egiten dira. Astean bi atsedea egun emanda —oilagorra ehizatzeak debekua jarrita— arnas pixka bat emango genioke [Bizkaian, ostiraletan ezin daiteke oilagorrik ehizatu]. Oilagorrei ehiza-postuetatik tiro egitea debekaturik dago. Hala ere, egunaren hasieran erdi-ilun dagoenez, basoan sartu aurretik ehiztari batzuek tiro egiten diete. Azaroaren 30era arte goizeko 7:30etik aurrera ehiza daiteke, eta abenduaren 1etik 8etatik aurrera. Ordu erdi atzeratzea proposatzen dugu.

Jatetxeek ezin dute oilagorrik saldu, ehiztari furtiboei hegoak mozteko. Askotan, ordea, kartatik kanpo eskaintzen dute. Niri usapala eskaini zidaten Gipuzkoako jatetxe batean duela gutxi, eta hura ere ezin da komertzializatu. Bestalde, badira baserritarrek soroan dabilzanak aitzurra esku batean eta eskopeta bestean, egunsenti zein ilunabarrean, oilagorrak azaldu zain. Badut ezagun bat, guardak ikustean arma letxuga artean ezkutatzen duena... ■



Onddoak

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Larrun

180

www.argia.com/larrun



HONDAKINEN AUTOKUDEAKETA

Herritarren konposta: ongarriaren iraultza

Datorren astean

«Artistak gara, ez gimnastak»

“...Dantzan ginen dantzan, elkarri estekan...”.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

“Amatxo, baleta egin nahi dut”.

4 urterekin esan nion. Hori bai, grina horren jatorria misterio bat da oraindik. Dantzarekin zerikusia zuen guztiak sorgintzen ninduen, liluratzeko. Soineko horiek janzteak, pertsonaia ezberdinak antzeztea, musika entzun eta mugimenduak koordinatzea... Dantza gustatzen zitzaidan, dantzariaren bizitza baino gehiago. Ez naiz dantzaria dantzari bizitzak erakarri ninduelako, dantzak txundituta naukalako baizik. Gainera, orduan ez nuen dantzari bizitzaren berri, ez neukan erreferentziarik, gerora deskubritu dut bizimodu honek suposatzen duena. Horregatik gurea bizimodu sakrifikatua dela entzutean gaitzitzen naiz. Jakina nekeza dela, dena pikutara bidaltzeko gogoia sentitu izan dudala, baina hori ez al da edozein ibilbide profesionaletako gaitza? Izugarri maite dut egiten dudana, izugarri gozatzen dut dantzatzeko, pribilegiatua sentitzen naiz, eta horregatik diot, sakrifizioak ez, aukerak egin ditudala.

Aukerak egiterako orduan, lagundu dizu erreferentziarik ezak?

Erreferentziarik ez neukanez, ez neukan helburu urrunik. Ez dut sekula pentsatu ez dakit zein konpainiako bakarlari nagusia izan nintkeenik. Ez nituen konpainiak ezagutzen, ez nekien zeintzuk ziren puntakoak, ez nuen euren erreperatorioaren berri... Aldizkariekin batera oparitzen zituzten bideoei esker deskubritu nuen Zisneen Lakua! Dantzatzeko grina neukan, dantza ezberdinak probatzeko, koreografoak ezagutzeko, baina ez neukan helbururik. Hala, bidean topatzen joan naizenarekin ikasi dut zer gustatzen zaidan eta zer ez. Horri esker gozatu dut bide osoa. Jende gehiegi dago ospe eta iritsi nahiak isututa. “Ez dakit zein dantzari bezalakoa izan nahi dut” entzuten dudanero nik ez dudala

sekula halakorik desiratu ohartzen naiz. Nik izan naitekeen dantzari onena izan nahi dut, egunero ikasi, egunero nire mugetara hurbildu, baina ez, ez dakit nor bezalakoa izateko!

Eguneroko horretan urrats garrantzitsua izango zen 14 urterekin Madrilera joatea.

14 urteko nerabeak ikustean, “ni adin horrekin joan nintzen Madrilera?” harritzen naiz. Sinesgaitza zait. Ez nintzen jabetzen 14 urte neuzkalla, adin horrekin Madrilera joatea atipikoa zela, nik dantzan aurrera egin nahi nuen eta horretarako Madrilera joan behar zenez Madrilera jo nuen. Orain konturatzen naiz etxeko kalbarioaz. Gurasoek ezer gutxi zekiten dantza profesionalari buruz, ez zekiten soldata onak ziren ala ez, zer lanbide mota zeuden, zein karrera... Baina nire apustua babestu zuten, konfiantza eta animo izugarriak eman, eta intentzio serioa neukala ikusirik ausartak izan ziren. Badakit kritikatuak izan zirela, abandonatu nindutela bezalako komentario pozoitsuak entzun behar izan zituztela, baina gauzak zer diren, orain aho berberetik esaten diete “ai zuen alaba...”.

Zer da zuretzat dantzari ona?

Ezer baino lehen, artista da. Egun teknikoki oso dantzari onak daude, baina ni artistak

NORTASUN AGIRIA

Itziar Mendizabal 1981eko abenduaren 14an sortu zen Hondarribian. 1998tik 2002ra Victor Ullatek Madrilen zuzentzen duen konpainian aritu ostean, Zuricheko (Suitza) baletean dantzatu zuen 2003tik 2006ra. Handik Leipzige (Alemania) baletera joan zen eta 2008an bakarlari nagusi izendatu zuten. 2010etik hona Londresko Royal Balleteko bakarlari nagusia da.





mugitzen nau, teknikoki perfektua ez izan arren artistikoki zerbait aportatzen didanak. Julieta izan behar duenean izan dadila Julieta, Zisnea egokitzen zaionean Zisnea. Ezin litezke rol guztiak berdin dantzatu. Tamalez, hobe baina hobe izan nahiak birtuosismo teknikoan itsutzen du jendea. Ederrak dira itzuli-mitzuliak edo hanka altxatzeak, baina teknika bikaina ezinbestekotzat dudan arren, artistak gara, ez gimnastak. Ez dezagun ahaztu sorginkeria teknikoez gain rol bat antzeztu behar dugula. Ni sentimenduak mugitzen nau, eta horretarako, pausoak ahantzi behar dituzu. Agian ez zara perfekziora iritsiko, baina zuk bizitzen duzuna sentituko du ikusleak.

Zenbat du dantzariak aktoretik?

Hor dago koska. Ezin hobeto dantzatu arren, ez baduzu antzezten, ez bazara komunikatzeko gai... Urratsak barneratzeaz gain, entseguetan, etxean, zure momentuetan, pertsonaia horrek bizi duena bizituta zer sentituko nukeen arakatzen dut nire baitan. Pausoekin hasterako saiatzen naiz pertsonaiaren azalean sartzen. Analisi horrek, hausnarketa ordu horiek eramaten zaituzte dantzatzen duzuna sentitzera. Hala, gerta liteke pertsonaia bera egunero modu ezberdinean interpretatzea, inguruko inpultsuen arabera, baina beti sentimendu orokor baten barruan. Horretarako, ezinbestekoa da ez kopiatzea, barruan duzuna adierazteko zure modua aurkitzea. Kopia-

tzeak naturaltasuna kondentatzen du. Pape-rean zinez murgiltzea da gauzak zure modura egiteko bermea. Aurrez egingo eta sentituko duzun guztia kalkulatzeko bazabiltza, ez zaude pertsonaian sartuta, zure zilborrari begira baizik.

Zilborraz ari gareno, zer harreman duzu ispiluarekin?

Ispilua zure lagunik minena edo etsai gaiztoena izan daiteke. Guk beharrezkoa dugu, ez du gezurrik esaten. Zure burua analizatzen, zure irudiaren jabe izaten, asko laguntzen dizu, baina batzuetan ahaztuta hobe. Pentsa, badira ispiluari ez begiratzea nahiago izaten dudan egunak! Gazteagoa nintzenean gehiago erreparatzen nion, ziurtasun ezari aurre egiteko modua da zure burua etengabe ispiluan neurtzea. Heltzean, egiten ari zarenaren jakitunago zara, zure gorputzaren kontzientzia erreallagoa daukazu, eta errazago egiten duzu ispiluaz beste.

Ispiluarekin bezala, egin daiteke lehiakortasunaz beste?

Lehiakortasuna beti da gogorra. Printzesa beti da bakarra, bi lagun bakarleri ditu, lau laguntzaile... Zauden eskailera mailaren arabera beti daukazu aspirazio bat begi-bistan, beti zaude goragoko koskari so. Gora egiteko zu aukeratzen zaituztenean besteentzat da gogorra, eta besteak hautatzen dituztenean zuretzat. Hori hala da, ez dauka erremedio-

rik. Pentsa, oraindik ere, bakarleri nagusi nai-zen arren, gertatzen zait espero nituen rolak beste bati ematea. Onartu eta aurrera. Dena den, hori ez al da lanbide eta bizitzako arlo askotan gertatzen? Nik zorte izugarria izan dut poliki-poliki goraka egin eta amestu baino askoz karrera hobea josi dudalako, baina jende asko ikusi dut bidean erortzen. Ez da dantzari ona izatea bakarrik, psikologi- koki sendoa izan behar duzu, zortea alde eduki... Ez dira gutxi ni bezala 14 urterekin Madrileren joan, dena karta bakarrera jokatu, eta 21 urterekin dantza utzi eta Lehenengo BBBra itzuli behar izan dutenak. Horrelako kasuak egon dira, badaude, eta gurean dantza eta ikasketak bateratzeko egiturarik ez dago- en bitartean, egongo dira.

Egunero epaitua zaren irudipena duzu?

Egunero epaitzen naute eta egun txar bat duzunean nekeza da. Konpainia guztiarekin duzun entseguan bakarkako tarte bat traba- tzen bazaizu edo ez bazaizu bila zabiltzanik irteten, negarraldia ez dira aparte izaten. Beste batzuetan, aldiz, oharkabean borobil- tzen duzu dena, eta gozamenak ez du pareko- rik. Garbi dagoena da, bakarleri nagusiaren ardura erantsia beti daramazula bizkarrean. Inoiz sumatzen dituzu dantzari gazteak mal-

tzurki begira “hori nik ere egin dezaket!” pentsatuz, baina gauza bat da urratsak egin ahal izatea, eta beste bat balet osoa atzetik daramazula jende aurrean dantzatzea. Bakar- lari nagusi izateko indar psikologiko handia behar da. Batzuek berezkoa dute, beste askok ikasi egiten dute, eta badira sendotasun hori sekula lortuko ez dutenak.

Zer harreman duzu denboraren joanarekin?

Garbi dut nire dantzari ibilbidearen azken txanpan nagoela. Data hori atzeratzen saiatu arren, erremediorik gabe iraungitze data duen karrera da gurea. Batzuetan, gero eta gutxia- go falta zaidala pasatzen zait burutik, baina handik gutxira, egin dudana ibilbidea errepasa- tu eta oso asebeteta sentitzen naiz. Are gehia- go, orduan gozatu arren, ez nuke 19 urterekin nintzen dantzaria berriz izan nahi. Askoz zoriontsuagoa naiz egun. Oraindik ez dut ezin fisikorik nabari, baina ohartzen naiz errekupeazioa lehen baino geldoagoa dela. Halaber, duela bost urte baino askoz dantzari hobea sentitzen naiz, gutxiago eginda hobeto dantzatzen dut. Gehiegi egin nahiak lotzen zaituen tentsioa sortzen dizu eta dantzari hel- duek duten auratik urruntzen. Hauek agian ez dute hanka hainbeste altxatuko, baina ez dio inporta, artistikoki helduagoak baitira,

EGIZU HARPIDETZA EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

ZELO-PAREA
HERRIAN (PM)

Balitz eta balego

Futbolarekin itsutzen garen bezala itsutuko bagina baletarekin, Itziar Mendizabal kalean dabilen bezain lasai ibiliko al litzateke? Emango al liguke elkarrizketarik bere oporren erdian? Zenbat prentsa-burur eta komunikazio arduradun izango lituzke hilabeteetan zain eduki eta elkarrizketak ordu erdi baino luzeagoa ezin duela izan ohartarazteko? Kontatuko liguke aurrez entzun ez dugun ezer interresgarririk? Hitz bakoitza neurtu beharrak ez ote lioke irribarrea ajatuko? Zorionez, Itziar Mendizabal munduko dantzari onenetakoa da. Zoritxarrez, futbolari begira segitzen dugu.



egiten dutenaren kontzientzia osoa dute, eta hori sentitu egiten da. Zer egin dezakezun eta zer ez jakiteak ziurtasun handia ematen dizu, eta zure bertuteak hauspotzen eta ezinak estaltzen erakusten. Hori hala, badakit urte batzuk barru festa bukatuko dela, ez dela une samurra izango, baina ezta drama bat ere. Ez daukat frustraziorik, egiteko hau edo hura geratzen zaidan sentsaziorik, gozatzen ari naiz, eta kontziente naiz pixkanaka nekatzen hasten zarela eta bizimodu arrunterako gogoia pizten zaizula. Gorputzeko mina behintzat ez dut faltan botakola!

“Nola ez du ba minik izango exijitzen zaien diziplinarekin!” pentsatuko du batek baino gehiagok.

Ez dakit zergatik dagoen diziplina gaizki ikusia. Ni oso mugitua nintzen, eta baletak izugarri lagundu zidan ohitura onak hartzen, errespetua garatzen, eta nire indarrak kanalizatzen. Konbentzitututa nago diziplina beharrezkoa bezain lagungarria dela. Hori bai, itsutu gabe. Diziplinatua izateak ez du esan nahi bekatu txikiak egin behar ez direnik. Ezin diozu diziplinaren izenean bizitzeari utzi. Dantza gauza bat da, baina dantzaz aparte gauza asko daude, eta esperientzia berriak probatzea nola ez da aberasgarria izango? Denetarako tartea eta aukera dago.

Baleta ere esperientzia berri bat izan liteke askorentzat, baina “elitista” dela diote mingain gaiztoek.

Iaz ikuskizun bat antolatu genuen Hondarribian eta ordu erdian agortu ziren sarrerak! Arrantzaleek, baserritarrek, etxeko andreak... “Tira, gu bagoaz” esaten zidaten, eta amaieran, denak pozarren! Herri txikieta ere goimailako baleta ekarri behar da, bestela baleta beti izango da aspergarria, elitista... Maila goreneko baleta ikusita, batzuei gustatuko zaie eta besteei ez, baina inork ez du “hau kaka bat da!” esango. Kalitatea sumatu egiten da. Alabaina, zer publikorentzat programa-

tzen ari zaren izan behar duzu gogoan. Ezin duzu baletako kulturarik ez duen herri txiki batera baletaren purutasunaren esentzia frogatzeko haizearekin datorren konpainia ekarri. Kalitatezko pieza lixeri-errazak eskaini behar dira eta ikusleak hezten joan. Jendeak baleta ikusi nahi du, aukera eta programazio egokia eman behar zaizkio. Esaterako, Biarritzen bertan, heziketa lan handia egiten ari dira. Eskoletatik umeak eramaten dituzte baleta ikustera eta Biarritzeko konpainiak saio bereziak egiten ditu haurrentzat. Kulturaren har hori zabaltzea ezinbestekoa iruditzen zait. Izan ere, askotan, elitismoa baino gehiago, arazoa ezjakintasuna da.

Iritsi zaren lekura iritsi izanak lagundu dezake ezjakintasun horri buelta eman eta Euskal Herrian baletaren egoera hobetzen?

Baietz espero dut. Kanpoan gabiltzanok zein itzuli direnek zezenari adarretatik heldu nahi diogu, baina zaila da gauzak goizetik gauera iraultzea. Ezer baino lehen, goi-mailako eskola bat behar genuke, hemengo dantzarietako eskola pribatuetatik profesionalizaziora salto egitea ahalbidetzeko. Horretarako, dantza klasikoko maila altuko konpainia bat edukitzea litzateke aproposena. Proiektu txikiak ez dira aski, dantzarietako ere egonkortasuna behar dute, antzoki bat, urtean zehar garatuko duten errepertorio bat... Horrek hobetzen ditu bai dantzaria eta bai konpainia. Horrek piztuko die umetxoei dantzari izateko grina, horrek sortuko du etxetik bertan dantza konpainia izateaz harro dagoen antzokirako publikoa. Izatekotan, oso proiektu handia beharko luke, eta berez urruti bazegoen, egungo egoera ekonomikoak ez du gerturatzen. ■





DETROIT

Hiri bat harian

Hustasuna eta bakardadea nabari dira Detroit (Michigan, AEB) zapaldu bezain laster. Hamabost pisuko etxebizitza-dorre hutsak Downtownaren sarreran. Haietariko baten goialdean graffiti aski handi bat, *Zombieland*. Kotxe bakan batzuk ere ikus daitezke errepide orain zabalegietan. Oinezkoak apenas. Hain dira gutxi, ezen agurtu egiten zaituzte ondotik pasatzean. Hau ez da Detroiti buruzko enegarren erreportaje apokaliptikoa, baina zaila da tentazioari eustea.

Testua eta argazkiak:

| ANDER GORTAZAR BALERDI ETA JACEK MARKUSIEWICZ |

UZTAILEAN, porrot egin duen hiri estatubatuar handiena bilakatu zenetik, luze hitz egin da Detroiti buruz. Askok entzun dugu, asko irakurri, baina batez ere, asko ikusi dugu, hondamendiek duten erakargarritasun estetikoa muturreraino ustiari duten argazki-erreportajeen bidez. *Ruin porn* (hondarren pornografia) izenez bataiatua, fenomeno honi esker ezagu-

tu ditugu Detroiten iraganaren arrastoak: munduko aparkaleku dotoreena den Michigan Antzokia izandakoa, 38 solairu hutseko Book Tower etxe orratz neoerrenazentista, Brush Park auzo aberats ohian zutik dirauten etxetzar apurrak eta, podiumaren gorenean, Michigan Central Station tren-geltoki abandonatua, hiriaren gainbeheraren ikur neoklasikoa.

DETROIT



Ezker-eskuin: Michigan Central Station tren geltoki abandonatua, hiriaren gainbeheraren ikur neoklasikoa eta *ruin porn* edo hondarren pornografiaren podiumaren gorenean; Metropolitan Building eta atzealdean Book Tower etxeorratza, biak hutsik; State street (Downtown); eta hiriko mendebaldeko sarrera nagusia, Detroitko Broadway izatera deitua zegoen Michigan Avenue. Garapenaren izenean hartu ditugun hainbat erabaki ukatuz, hala irudikatzen du bere etorkizuna hiriak. Salbuespena den ala olatu berri baten hasiera, denborak esango du.



Hiri eredu baten porrota

XX. mendearen hasieran, autogintzak Estatu Batuetako laugarren hiri handiena bilakatu zuen Detroit. Horren adierazgarri dira hiri Erdiko etxe orratz dotoreak: altzairuzko egiturek eta harrizko fatxadek Chicago edo New York bezalako hiri arrakastatsuen distira nostalgikoa dakarkigute burura. Ford, General Motors eta Chrysler enpresek milaka lanpostu sortu zituzten, eta hala, 1900. urteko 300.000 biztanleak 1.500.000 ziren 1930an, eta ia bi milioi 1950ean. Eta hamarretik bederatzi arraza zurikoak ziren.

Kotxeak egiten zituzten Detroiten, baina hori baino askoz gehiago ekoizten zuten: amets amerikarra zen, egiaz, amaierako produktua. Autonomia pertsonala, familia bakarreko etxebizitza lorategi eta guzti, segurtasun sentipena, arrakasta. Hiri eredu berri bat hauspotu zuen Detroit zaharrak, eta hainbesteko arrakasta izan zuen, ezen hiri eredu berriak guztiz ordezkatu zuela zaharra, erabilgaitz bihurtzeraino. Loraldi itzel bezain motzaren ostean, ametsa amesgaizto bilakatu zitzaion Detroiti. Izan ere, mendearen bigarren Erdiko historia erabat ezberdina da. Lantegiak hiriko mugetatik at kokatzen hasi ziren. Bitartean, klase ertain eta altuak hiri erdia utzi eta kanpoaldera bizitzera joan ziren, bizitza arrakas-

Autoak baino askoz gehiago ekoizten zuten Detroiten: amets amerikarra zen, egiaz, amaierako produktua. Autonomia pertsonala, familia bakarreko etxebizitza lorategi eta guzti, segurtasun sentipena, arrakasta


tatsuaren ezaugarriak betetzen zituzten etxebizitza handiagoetara, auzo isolatuagoetara, udalerrri homogeenagoetara. Ibilgailu pribatuaren aroan, hiri berria kanpoaldean zegoen, erdialdea iraganeko kontzeptu zaharkitu bihurtzeraino. Gurpil zoro baten moduan, fenomeno hau areagotuz joan zen hamarkadaz hamarkada: auzo batean utzikeria sintomak sumatzen hasi bezain laster, bizkortu

egiten zen bertako bizilagunen ihesa. Hala, biztanleriaren bi heren galdu ditu hamarkada gutxian Detroit-ek.

Haatik, antzera gertatu zaien beste hiriekin konparatuta bada ezberdintasun esanguratsu bat: kasu honetan, eremu metropolitarrak jaso du biztanleri

galera hori guztia eta askoz gehiago. Esan nahi baita, Detroit hiriak biztanleriaren bi heren galdu baditu oso denbora gutxian, eremu metropolitarrak bi milioi irabazi dituela denbora tarte berean. Detroiten gainbeheraz hitz egiten den garaiotan, bere eremu metropolitarrak ekonomia osasuntsu eta dibertsifikatua du, eta bertako per capita errenta AEBen batez bestekoa baino altuagoa da. Eta, mende hasierako Detroiten antzera, hamarretik bederatzi arraza zurikoak dira, berriz ere.

Izan ere, ihesaldi honen protagonistek zuria dute azalaren kolorea. Mende erdi eska-



sean, Detroit hiria ia osoki zuria izatetik ia osoki beltza izatera pasa da. *White flight* izenez ezagutzen den fenomeno honek ongi asko erakusten du arraza eta klase sozialaren arteko harreman zuzena: klase ertain eta altuen ihesa, arraza zuriko bizilagunen ihesa eta kapitalen ihesa, ihes bera dira.

Uzkurtzen den hiria

Industrializazioaren hasieratik, hiri-antolakuntza hazkunde prozesuen (demografiko, ekonomiko) inguruan oinarritu da ia eskusiboki. Egun, historiaren aro hau amaitzearen honetan, desazkundera aurre egin beharreko errealtate gisa azaldu zaigu. Fenomeno hau jasan duten hiriei esaten zaie *shrinking cities*; Detroit, *shrinking city* muturrekoena, eszenatoki paregabea da bide berriak jorratzeko. *Detroit Future City* egitasmoan irudikatu dituzte bide berri horiek. Administrazio publikoaren, sektore pribatuaren eta hiriko hainbat eragileren artean burututako dokumentu mardulak populazioaren egonkortzea aurreikusten du, 700.000 biztanleren bueltan. Gutxi, oso

Administrazio publikoaren, sektore pribatuaren eta hiriko hainbat eragileren artean buruturiko Detroit Future City egitasmoan populazioaren egonkortzea aurreikusten dute



gutxi dira 700.000 biztanle bi milioirentzako tamaina duen hirian, zerga bidez bildutako dirua ez baita nahikoa behar funtsezkoenak asetzeko. Mugikortasun, ur, elektrizitate eta estolda-sarea, esate baterako, ezin kudeatuzko bilakatu dira hiriaren azalera itzel eta dentsitate baxukoaren erruz. Baina ogi gogorrari hagin zorrotza. Arazoa muturreko dentsitate baxua izaki, erantzunak ere muturrekoak dira, biztanleriaren zati bat –literal-ki– lekuz mugitzea jarri baitute helburu. Historikoki landa-lurrari lekua kendu badiogu hiri-lurraren mesedetan, Detroit-ek nekazaritzari itzuli nahi dizkio hutsik geldituko lirakeen lursail horiek, “jaten duguna gara” esamoldearen logika muturrera eramanez. Mugikortasun politika ere baldintzatuko luke horrek, estrategia aldatzea lekarkeelako. Garraio-sarea *ad infinitum* hedatu beharrean, sinplifikatu eta eraginkor bilakatzea da xedea, ibilgailu pribatuarekin lehiatzeko moduan. Garapenaren izenean hartu ditugun hainbat erabaki ukatuz, hala irudikatzen du bere etorkizuna hiriak. Salbuespena den ala olatu berri baten hasiera, denborak esango du.

Hustasun eta bakardade sentipena baretu ostean, eguerdia da jada. *Lunch-time*. Jatetxeak gutxi dira baina jendez lepo daude, lantokiak badiren seinale. Bizikletak seguru mugitzen dira hiribide agian ez hain zabalegietan, ez baitute behar bidegorri bereizirik. Turista bakan batzuek, kamera eskuan, izaki bizidunei muzin egin eta eraikin kalamastren bila segitzen dute, arrakasta zalantzazkoz. Azken buruan, errealtatea ez da Yves Marchand eta Romain Mefre-ren argazki-sorta famatua bezain apokaliptikoa. Baiki, Detroit-ek bizi izan ditu garai hobeak, baina bizirik segitzen du. Harian, baina bizirik. ■

Argazki-galeria osatuagoa webgunean ikusgai.



AUZOLAN ESPERIENTZIAK

Ibaiko zaborra biltzea, kirola eta artea uztartuz

Itsaso eta mendietako hondakinak biltzeaz gain, gero eta gehiago dira ibaietako zaborra garbitzeari ekin dioten kolektiboak. Horretarako antolatu du Donostiako Gondolin Klubak Garbibai lasterketa: kirol eta lehia giroan, zabor bilketa eta artea jorratzen ditu, elkarlana oinarri.

| LIDE HERNANDO |

Argazkiak: Marcelo Díazek utziak



JACQUES COUSTEAUK ESAN ZUEN: “XX. mendean, gizadiaren historia guztian baino min handiagoa egin zaio lur planetari”. XXI. mendean ere ez dirudi gauzak hobera egin duenik eta gizakiok sortutako hondakinen arazoa lehen mailako kezka bihurtu da dagoeneko. Horren jakitun da Gondolin Klubeko kide eta sortzaile Marcelo Díaz. Kirola egiteko behar duten espazioa, ura, espazio garbia izatea funtsezkoa da klubarentzat, eta hala izan dadin saiatzen dira. Betidanik itsasora begira egon den Donostia bezalako hiri batean, bestalde, klubak hasieratik argi zuen Urumea ibaiari arreta berezia jarriko ziola, bai bere jardueretan baita zaintzan ere. “Ibaia, itsasoa eta mendiak ez bezala, ahaztuak izan dira hondakinen garbiketari dago-kionez”, dio uruguaiarrak.

Stand Up Paddle modalitatea praktikatuz –ohol baten gainean zutik arraun egitea–, ibaia garbitzea helburu duen munduko lehen lasterketa da Garbibai

Iaz, Garbibai ekimena jarri zuen martxan klubak, eta urtero errepikatzea da asmoa. Stand Up Paddle modalitatea praktikatuz –ohol baten gainean zutik arraun egitea–, ibaia garbitzea helburu duen munduko lehen lasterketa da Garbigai. “Ideiaren oinarria lagun australiar batek esandakoari esker bururatu zitzaidan: bertako surflariak, hondartzara doazen bakoitzean, gutxienez hiru hondakin solido hartzeko ohitura dute –dio Díazek–. Utopiko jarritz, gutariko bakoitzak hori egingo balu munduan zenbat zabor jasoko ote zen pentsatzen jarri nintzen. Hori lortzea ezinezkoa den arren, guk auzi horretan gure harri-koskorra ekartzea pentsatu genuen”.

Ezohiko kirol ekimena

Garbibaik, alde batetik, ohiko lasterketa baten ezaugarriak ditu. Bost lagunez osatutako taldetan gauzatzen da lehia, eta taldeko pertsona batek 13 kilometroko abiadura-lasterketa egin behar du Urumean zehar, bidean gutxienez hiru zabor arrasto jasoz. Bitartean, taldeko gainerako lauk bi orduren buruan

ahal bezain zabor gehien jaso behar dute eta euren oholaren gainean eramanez. Epaimahaiak ebatziko du talde irabazlea zein den, lasterketa egin dutenen denbora, jasotako zabor kopurua eta aurkitutako hondakinen balio artistikoa kontuan hartuta. “Gure helburu behinena ondo pasatzeko jarduera egitea zen, zaborraren arazoa aintzat hartuko zuena –adierazi digu antolatzaileak–. Gerora konturatu ginen, azken batean, auzolanean egindako ekintza ere badela”.

Ekimenaren alde artistikoa Donostia 2016ko Olatutalka egitasmoarekin batera hasi ziren jorratzen. 2011. urtean izan zen, Garbiba oraindik sortze prozesuan zela. Klubeko bazkide askok harremana zuten artearen munduarekin, eta interesgarria iruditu zitzaizkien auzolan kolektiboari ezaugarri hori gehitzea. “2012. urtean lehen edizioa egin ostean, aurkitutako hondakin bitxienei argazkiak ateratu genizkien, eta artean jakitun den kide bati erakutsi nizkion. Hark objektu horiek erakusketa batean jartzeko modukoak zirela esan zidan, eta ez genuen bitan pentsatu”.

Lasterketatik harago

Lehenengo urtean ezin izan zuten erakusketarik egin, aurkitutako objektuak birziklatzera eramanez baitzituzten lasterketa amaitea eta berehala. Bigarrenaren ostean, ordea, aurkitutako hondakin ikusgarrienekin erakusketa egin zuten Punto Dendan, Donostiako merkataritza bulegoan. Hondakinei ateratako argazkirik bitxiak ere postal moduan oparitzen dituzte klubean, promozio gisa. “Denetarik ateratzen dute lehiakideek lasterketan... Batek errebolber bat topatu zuen behin!”, dio Díazek. Argazki horiek hurrekin tailerrak egiteko ere erabi-



Ezkerreko orrian, lehiakideak lasterketaren hasieran. Jasotako hondakinekin banaketa kromatikoa egiten dute, beste zenbait gauzen artean, erakusketarako (goiko irudian).

li dituzte, zaborraren errealitateaz txikienak ere jabetu daitezela. “Ez diegu inongo leziorik ematen, tailerretan haurrak dira argazkiak hartu eta hondakin bakoitzaren atzeko istorioa asmatzen dutenak –azaldu du Garbibaiko kideak–. Hainbat auzotan egin ditugu tailerrak eta umeek euren bizipenen arabera kontatzen dituzte hondakinen gaineko istorioak”.

Bi edizioen ostean, Olatutalkako kultur teknikari Iker Tolosak argi du Garbiba kulturalki potentzial handia duen ekimena dela. “Zaborraren artea egiteaz gain, ibaiak utzita ditugula gogorarazi digu, are garrantzitsuagoa ‘marko paregabeari’ begira bizi den hiri honetan. Bestalde, garbitzea gauza dibertigarria izan daitekeela pentsarazi du, kontzientziak irauliz. Dena

ondo badoa, beste ibaietara zabaldu nahiko genuke ekimena”.

Tolosak gaineratu duenez, “Olatutalkakok Garbiba eraldaketa sozialerako tresna sinbolikoa izan daitekeela uste dugu. Jasotzen den zabor kopurua handia da, baina ez da inolaz ere jaso daitekeen guztia. Lasterketa dibertigarri eta arte modernoko erakusketa ikusgarri baten atzean, mezu sakona bidali nahi duen ekintza kolektiboa da, azken finean”.

Azkenik, ezin dugu ahaztu Garbiba ez dela ibaien garbiketaz kontzientzia hartu duen kolektibo bakarra, ezta lehena ere. Badaude beste batzuk, Urgarden kasu, jarduera ludikoekin nahastu gabe hilero ibairen bat garbitzeko deialdia egiten dutenak. Euren webgunean deialdi irekiak egiten dituztenez, kolektiboko kideez gain, garbitzera doazen ibaiaren inguruan bizi diren herritarrak ere batu ohi zaizkie gehienetan. ■



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

BIZKAIA BIZIA



DANI BLANCO

Garbiñe Biurrun Mancisidor



EHUKO
IRAKASLEA,
EPAILEA

Marmotaren garaia

FILM EZAGUN bateko pertsonaia saiatzen da egoera zehatz batetik irteten. Ezinezkoa zaio: behin eta berriro errepikatzen da egoera; egunak joan egunak etorri, errealtate bera gertatzen da berriz ere.

Gauza bera gertatzen ari zait niri. Baina, gainera, askoz ere larriagoa da. Niri errepikatzen zaidana ez da egun bat soilik, garai osoa baizik.

Orain egun batzuk Herrira erakundearen aurkako operazioa burutu zen. Ikargarria izan da: presoek eskubideen defentsarako talde bat kriminalizatu da. Bere kudeatzaileak atxilotu eta inputatu, beren ideiak ETari lotu dira. Jakingo dugu zertan gauzatzen den hau guztia —ea benetan, epaileak argudiatu duenez, Herrira taldeak ETari lotutako presoek aginduak ematen

dio urtea bukatu aurretik bere desarma adieraziko duela. Horrela gertatzen bada, erabateko garai berria zabalduko zaigu herritar gehienoi, eta politika mundura exijentzia handia ekarriko du: marmotaren garaian bizitzea eta jardutea erosoegia izan da askorentzat, baina aro berriak lana eta borondatea eskatzen ditu, aitzakiarik gabe, norberaren posizioak garbi azalduta eta benetako eztabaidarako gaitasuna.

Baina, ez pentsa hemen bakarrik bizi garenik egun luze eta aspergarri honetan: Espainian gauzak ez daude hobeto. Kataluniak plazaratu duen erronka markatzen ari da agenda politikoa, baina, honetan ere, ideia berri gutxi entzuten da: betiko topikoak, betiko argudioak eta oztopoak, pentsatzeko eta jarduteko askatasunik ez balego, immobilismoa jarrera positiboa balitz bezala.

Gure esparru geografikoari buelta osoa ematearren, Europari begirada bat botaz gero, ez pentsa han marmota esnatu denik, ez. Gaur, Europa osoan berriro ere muturreko eskuinak izugarritzko gorakada egin du, eta horri lotuta, indar politiko berriak edo berriak agertzen ari dira, hainbat kasutan mugimendu herritarren sortuz. Giza eskubideen aurkako mugimenduak dira, bortitzak, helburu kezkarriak dituztenak. Ez da denbora luze igaro Europako herriek eta herritarrok faxismoaren ondorio latzak pairatu genituela, beti aitzakia bera hartuta: krisi ekonomikoa eta soziala, politikaren porrota eta emigrazioa. Onartu behar da jende asko desesperatuta eta haserretuta dagoela, baina ezin dugu inolaz ere onartu haserre hau beste herritarren aurka joatea —etorkinen, homosexualen, pobreen, edota beste langileen aurka—. Marmota lo dago European ere, baina sugea erne dabil, arrastaka doa herrialde guztietan zehar bere gorrotoa zabalduz.

Toki guztietan marmota bera izanik, ea behingoz esnarazten dugun han eta hemen. Edo akaso, ni izango al naiz marmota? Hala bada, ea baten batek esnatzen nauen nire lokumatik. ■



Ez da denbora luze igaro Europako herriek eta herritarrok faxismoaren ondorio latzak pairatu genituela, beti aitzakia bera hartuta: krisi ekonomikoa eta soziala, politikaren porrota eta emigrazioa. Onartu behar da jende asko desesperatuta eta haserretuta dagoela, baina ezin dugu inolaz ere onartu haserre hau beste herritarren aurka joatea

zizkien edota euren askatasuna mugatzen zuen—. Halere, azpimarratzekoa izan da, baita ere, atxiloteta hauek agintzerakoan, epailearen jarrera, hau da, terrorismoaren aurkako salbuespenezko legedia aplikatu beharrean, atxiloteta komunikatua —hau da, arrunta— erabaki zuen. Auzitegi Nazionalak norabidearen aldaketaren seinale izan daiteke. Horrela dirudi, horrenbeste urtetan legedi hori inolako kritikarik gabe aplikatu eta gero, denok ezagutzen ditugun ondorio larriak utzita. Hemen, beraz, badirudi marmota esnatu dela, edo behintzat, begi bat ireki duela.

Hori gertatu baino pare bat egun lehenago ETak agiria —enagarren aldez— plazaratu zuen, betiko ildotik, berriak azaldu gabe, begiak itxita eta marmotaren gurrpil zoroan murgildurik. Zurrumurru batek



Iñaki Murua

BERTSOLARIA ♦



DANI BLANCO

Inurriak eta euli handiak!

LANGILE NEKAEZINIK ez dagoela esango nuke nik baina, inurriengatik zenbait bertsok eta kantak ere hala dio. Nekaezina, ordea, nola liteke? Edo dioen adina lan ez du egiten edo markatik kanpoko da. *Extra* esaten zaion horietakoa. Halere, nik uste, bakoitzak motxilan daramagun zamak baino gehiago nekatzen gaituela, ustez zuzen ari eta zaplaztekoa jasotzeak; neke psikologikoak. Ulertezin zaigunak!

Gure gizartean bi motatako langileak gaudela esango nuke –gehiago ere egon litezke baina, batzuei ez dakit zuzena den langile deitzea; besteei buruz hitz egiteko ezagutza nahiz tarte urria daukat–, batzuk ari direnik ere nabaritzen ez dugun horiek, baina etengabe jardunean bizi direnak eta, bestetarik, haiek bezain langileak baina denok ikusteko eran ari direnak; hauen lana nabarmen geratzen da eta egileak ere bai.

Egoera normalean, elkar elikatzen dute bi langile mota hauek baina argi izan behar dute beharrezkoa dela elkarrekiko enpatia eta osagarri izaera hori edo proiektuak porroterako bidea har dezakeela. Esaterako, euli handiak inurrien bidean edo inurritegi gainean lur hartzen badu, hauen patxada edo ibilia oztopatzeaz gain, nola lurreratzean hala aireratzean sortzen duen ziri(n)molak, ibilbidea eta zamak ez ezik inurriak eta inurritegia ere hankaz gora bota ditzake,

hauengan sortzen duen haserreak, euli handiaren lan nabarmen eta ikusgarria desitxuratzen duelarik.

Ezinegona eta dezepzioa, berriz, gerta daiteke inurriek euli handiari bere eltxarrak sor ditzan, arrautzak non jarri adostu eta lantzen dioten gunea albora utzi eta bere nahierara jarduten duenean. Batik bat, bi aldeetakoek uste dutenean arrautza horiek erruteko habiarik hoberena bakoitzak dioena dela, benetan gertatzen dena honako hau denean: bi habiak elkar-

rren osagarri (eta beharrezko!) direla, otordurako mahaia ezinbesteko gai guztiakin hornitu nahi badugu.

Berez, ikuspegi osoa, hegan, goitiko bista ezagutuz bizi den euli handiarena da. Hark du argazki osoa egiteko aukerarik hoberena, nire ustez, baina horrek ez du esan nahi beti asmatzen duenik edo inurriek ere errealtatearen argazkirik ez dutenik. Inurri hegalariek ere badirela kontuan izanik, noski!

Sentiberatasun handiz jokatzeko esaten ari zaigu sena; hau eskatzen, bereziki: zain dezagula elkar, nola aktiboki eragin/eragiten dugunak hala egoera saihestasagotik bizitzen ari/aritu direnak, guztion borondate onean sinetsiz, zubiak eraikitze gogogaitasuna oinarri, balizko porrota irakaspén bihurtzeko. ■



*Egoera normalean,
elkar elikatzen dute bi
langile mota hauek
baina argi izan behar
dute beharrezkoa dela
elkarrekiko enpatia eta
osagarri izaera hori edo
proiektuak porroterako
bidea har dezakeela*

DANI BLANCO



**Amets
Arzallus**



BERTSOLARIA

Lampedusa

*HALTZAK ez du bibotzik ez gaztaberak bezirik... Lampedusako uretan ito diren etorkinetako inork ez zuen abestuko *Supplique pour être enterré sur une plage de Sète*, haiek beste hizkuntza bat izango zuten, beste kantari batzuk, baina Brassens zenaren desioa haiek konplutuko dute, gure hondartzetan ehortziko ditugu, zientoka hezur eta bihotz.*

Batzuetan pentsamendu gordin bat etortzen zait, zorionekoak ito berriok, gure malkoen ertzeraino iritsi baitzarete azken arnasa ematera, gure begien bistan hil zarete, ez hango lur mutu eta gorraren gainera erori, goseak ala gaitzak edo gerlak

kolpaturik, beste hainbeste bezala, azken auhena entzunarazteko beste hurbildu zarete gugana, eta lur agor haietatik jendeak ihes egiten segitzen duela gogorarazi diguzue, guk horren zergatiaz pentsa dezagun istant batez bederen. Eta ez hainbeste integrazioaz.

Lampedusako kostaldera itsasoak odolaren mintzoa dakar, eta Xalbadorrek bere liburuan injustizia makabro horri hitz xuxenak jarri zizkion: "...kolo- rez beltzak izana gatik, heiek ere ama banak, bertzek bezala sofriturikan, mundu huntarat emanak". ■





Mikel Garcia Idiakez

◆ ARGIAKO KAZETARIA

Euskal LOMCErik ez, eskerrik asko

NOLA EGIN AURRE Espainiako Kongresuak onartu berri duen LOMCE legeari? Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak 2020rako hezkuntza eredu propioa garatuko duen Heziberri ekimena eztabaidatu zuen joan den astean ikas-komunitateko hainbat eragilerekin; aurrerapausoa da, baina bitartean inposatuko zaigun erreformari nola erantzungo zaio? Madrilgo Gobernuarekin elkarriketa eta negoziazioa defendatu du orain arte Uriartek, eta aurrerantzean ere legea EAerako leuntzen saiatuko den susmoa dute eragileek, hondamendia ahalik eta txikiena izan dadin. Baina “Euskal LOMCErik” ere ez dutela nahi eta bide bakarra erreforma ez aplikatzea dela argi du ikas-komunitateak.

Kataluniako Gobernuak egin duen moduan, Jaurlaritzak ere legeari (osotasunari, zati bati, edozein moldaketari...) irmoki uko egitea. Hori da hezkuntza komunitateko eragile ia denek eskatzen dutena, azken hilabeteotako protesta, agerraldi eta manifestazioetan argi geratu denez. Haatik, Uriartek, hizkuntza eta konpetentzia kontuetan eskua sartuz EAE-rako LOMCE alternatibo bat paktatu eta horretarako adostasun ahalik eta zabalena bilatu nahi ote duen, horren beldur dira asko. Horien artean, Ikoitz Arrese Ikasle Abertzaleak (IA) taldeko kidea. IA ez zuten bilerara gonbidatu, kurioski ez ikasle antolakunderik ez sindikaturik ez baitzuen gonbidatu sailburuak.

Intsumisioaren bidean, ikas-komunitatearen laguntza izango luke Jaurlaritzak (PPrena ezik), eta aldi berean, ikas-komunitateak instituzioen babesa izatea (Nafarroako Gobernuarena ez

dutela jakina da) funtsezkoa litza-teke desobedientziaren bide hori urratzeko. Azken finean, denon konplizitateak eta elkarlanak baino ez du bermatuko arrakastarako aukera. Badaude boikotetarako formulak, baina irakasle, ikasle, guraso, ikastetxeko langile eta politikari, indarrak batuta soilik egin dakiok planto Wert erreformari. Indar horren erakusle izan da urriaren 12an legearen aurka eginiko manifestazioa eta horregatik, ez du inongo mesederik egin EAJk eta PSEk manifestazioa ordezkaririk bidali ez izanak (dauden estrategia eta beharbada helburu ezberdinen lekuko).

Indarrak batuta soilik egin dakiok planto Wert erreformari. Horregatik, ez du inongo mesederik egin EAJk eta PSEk manifestaziora ordezkaririk bidali ez izanak (dauden estrategia eta beharbada helburu ezberdinen lekuko)

Laburrean, eduki homogeneo eta zentralistetan oinarritutako curriculum espainiarra, ikasle “txarra” lehenbailehen alboratzen duen ibilbidea, ezagutza memoristikoa eta akademikoa hobesten, konpetentzien filosofia baztertzen eta euskara kaltetzen dituen eredu ekonomizista ekarriko du lege berriak. Tinkoa izan zen erantzuna larunbatean: LOMCErik ez! Ez Espainiakoa, ez EAerako leundutakoa, ez inolakoa. ■



BERTSO BERRIAK

Estitxu Eizagirre Kerejeta



Doinua:
ETAren su-etenetik.



Werti intsumisioa

Werten lege ankerrari nola egiten zaio uko? besteei ardurak eskatuz denborik ez dut galduko: langileak funtzionario ta Jaurlaritzak lekuko gurasoek bultza ezik ez dute asko lortuko. Azterketara umeak ez aurkeztu eta puntu! intsumisioa dugu Txikipark-en ospatuko Espainiak ez ditu gure seme-alabak epaituko.

Ikastolan hazitako lehen belaunaldi kuttuna jakin gabe izango zen titulu ofizialduna etxeko konpromisioa euskararen oihartzuna... Ailegatu da guraso bilakatu den eguna: zer ta LOMCErik beldurra, garaiezina, urruna... Jokoan da galdera bat eta gure nortasuna: zenbatean saltzen dugun herentzia jaso duguna.

Ez dugu nahi “ikasle on” ta “ikasle txarrik” bereizi ez neurri beraz epaitu, haur bakoitza da bereizi ez letrak buruz ikasi, bai landu mila trebezi kritikotasuna bultza dotrinak ez du merezi. Guraso-irakasleak elkartuz gero lehenbizi “LOMCErik ez” adostuta oraingo moduan bizi nork agindu behar digu gure haurrak nola hezi? ■

1913-2013, Rudolf Trebisch-en lekukotasun soinudunak

Inaxio Lopez de Aranak Berlinen aurkitu zuen austriarrak egindako
Gernikako arbola-ren lehen grabazioa.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

ZENBAIT URTE ATZERA egin dugu istorio-historia honen hasmenta non den ikusteko. Inaxio Lopez de Arana Arabako Biltzar Nagusietan ari zen, informatika programa bat euskarara itzultzen. “Lan gaitz bezain aspergarria”, dio. Horretan, bertako dokumentazioburu Jesus Sobronen hotsa. Alemanezko artikulua zahar bat helarazi zion, Lopez de Aranak hari zer zeritzon jakin nahi zuelarik. “Iturri historikoen tratamenduei buruz Bartzelonan 1993an egindako kongresu batean eskuratu zuen artikulua hura. Karl Friedrich Rudolf-ek eman zion, hau da, Austriako enbaxadak Madrilen duen Institutu Historikoko zuzendari ohiak. Orduan entzun nuen nik aurreneko aldiz Rudolf Trebisch etnologo austriarraren izena, berak idatzi baitzuen artikulua hura”. Delako artikuluan –*Vienako Zientzietako Akademia Inperialaren artxibo fonografikoaren batzordeko 34. adierazpena. Euskal hizkuntzaren eta musikaren grabazioak, 1913ko uda*, Lopez de Arana anaiek itzulirik–, Trebis-



Ezkerreko irudian, Trebishek grabazioak non egin zituen adierazten dute puntu gorriek. Ondoko irudian, Trebischen artikulua.

chek kontatzen zuen 1913ko uztailaren 18an Euskal Herrira etorri eta hainbat grabazio egin zituela orduko euskaldunekin, euskararen eta euskal kulturaren lekukotasuna jaso nahirik.

Euskararen grabazioak, 1913ko uda

Artikulua irakurtzen hasi eta laster jabetu zen Lopez de Arana 1913ko testu hura guztiz interesgarri zitzaiola. Batetik, atzeritar batek Euskal Herriari buruz zuen ikuspegia agertzen zuen. Bestetik, hainbat datu ematen zituen gure herriaren eta hizkuntzaren gainean. Euskal mitologia, ohiturak, garai hartako gertakariak eta hamaika kontu jakingarri ere azaltzen zituen. “Artikulua, bestalde, ezezaguna zen Euskal Herrian, Gregorio Mujikak aipua egin bazion ere 1914an, *Euskaletariaren alde* aldizkarian”. Trebischen artikulua, azkenik, bertan aipatzen ziren grabazioak lortzeko bidea erakutsi ziezaioketela iruditut zitzaien Lopez de Aranari. Horretarako, testua alemanetik euskarara ekarri zuen anaia Martxeloren laguntzaz. Hori eginik, balizko grabazioen bila abiatu

Trebisch baino lehen, Azoulay

“Niri baino lehen Azoulay doktoreari bururatu zitzaion euskararen grabazio fonografikoak egitea –dio Trebishek–. Hala jakinarazi zigun, gainera, *Bulletins et mémoires de la Société d'anthropologie de Paris* aldizkarian, 1910ean, *Sur la manière, dont a été constitué le musée phonographique de la société d'anthropologie* artikuluan (305. orritik aurrera). Jakin badakigu Azoulay doktoreak, euskarazko eta beste hizkuntza askotako, Itun Berriko ‘Seme Iriolea’ren alegiaren narrazioa fonograma gisa erabili zuela. Grabazio haiek Parisko Erakusketa Unibertsalaren kariaz burutu ziren, ekitaldi hartara zenbait herrialdeko ordezkariak azaldu baitziren”.

zen, eta hizkuntza-grabazioen kopia bat Bilbon, Euskaltzaindiaren Azkue bibliotekan bazutela jakin zuen, 1984an Jose Maria Etxebarriak Euskal Herrira ekarria.

Inaxio Lopez de Arana ez zen horretan gelditu, hala ere. “Izan ere, Trebischekikoak argituagatik ere, alemanezko artikulua jakin-mina piztu zidan. Trebischek aitortzen zuen bera ez zela aurrena euskarazko grabazioak egiten, beste ikertzaile batek urratutako bideari jarraitu zitzaioela, hau da, Azoulay doktoreak 1900. urtean egindakoari. “1999ko urriaren 11n aurkitu nituen Azoulay doktorearen grabazioak, Parisko Musée de l’Homme-ko Etnomusikologia atalean. Garai bertsuan, bestalde, lehen aipatu dudak Karl Friedrich Rudolfek –Austriak Madril duen Institutu Historikoko zuzendari ohiak–, esan zidan Trebischen 1913ko grabazio gehien kopia Euskal Herrian bagenuen ere, euskal grabazio musikal ia guztiak falta zitzaizkigula oraindik, Berlinen zeudelako”. Zehatz non ziren adierazi ez bazioten ere, Lopez de Aranak 2003ko urtarriaren 13an aurkitu zituen grabazioak, Berlingo Fonograma Artxiboan. Orduan ere gorabeherak, ordea: “Kopia bat egin zidaten gaia ikeritzeko, baina ez zidaten baimenik eman grabazioei zabalkundea emateko”.

Trebisch Basken

Euskal Herrira etorri zelarik, Trebischek gramofonoa zekarren aldean. Bi zituen asmoak: euskalki guztien grabazioak egitea eta euskal etnologiararen bilduma osatzea. Horretan, grabazio musikalak egin zituen, musika ondarearen adierazle. 64 diskotan banatuta daude grabazio guztiak, bakoitzak bi minutu irauten duela. 130 minutu dira denera. Euskalki guztietako grabazioak ageri dira bertan –baita erronkarierakoak ere–, eta denetariko testuak, ipuinak, kontakizunak, pasadizoak, kantak... “Jose Maria Etxebarria euskaltzainak grabaziook sakonki eta zehatz aztertu ditu. Zortzi artikuluan ondu ditu hizkuntz grabazio gehienak transkribatuz eta, zenbaitetan, aztertuz eta itzuliz”.

Grabazio musikalei dagokienez, *Trebisch Basken*, izen horixe jarri zioten Berlinen gordetzen duten grabazio sortari. 14 disko edo zilindrotan banatuta daude, eta 32 minutu irauten dute. Antzinako grabazio musikal horietan, honako doinuak entzun ditzakegu, Inaxio Lopez de Aranak zerrenda egin digunez: “Ostalersa”, ‘Lili ederra’, ‘Satan-dantza’, ‘Turkoe airea’, ‘Pello Joxepe’, ‘Fandangoa’, ‘Kauter dantza’, ‘Barrikada’, ‘Valse italienne’, ‘Arto-lak deuko’, ‘Asiko nas asitzera’, ‘Adios Atxuri’, ‘Ezteietara’, ‘Andre Maddalen’, ‘Kontsesiri’, ‘Baserritarra’, ‘Vals con variaciones’, ‘San Juan Zortzikoa’, ‘Gernikako arbola’, eta ‘Monein’. Berlinen aurkitutako grabazio horietan dago,



Inaxio Lopez de Arana: “Musika grabazioetan, Donibane Garazi, Igorre, Azpeitia, Tolosa eta Atharratzeko kantari eta musikariak ditugu entzungai”.

Azpeitian

Trebishen hitzetan: “Zortzigarren eta bederatzigarren arrabolak Azpeitian grabatu ziren, Gipuzkoan. Han bi dultzainen eta danbor baten soinuak grabatu ziren. Funtsean, dultzaina txilibitu mihiduna da eta albokak baino zulo gehiago ditu. Eskualde horretan horrelako hirukote ugari daude. Sebastian Erasti mekanikariak eta Jose Maria Gurrutxaga errementariak dultzaina jo dute eta Gregorio Larralde igeltseroen arduradunak, berriz, danborra. Zortzigarren arrabolan honako konposizio hauek aurkitu ditugu:

a) Ezkon eguneko martxa bat, 100 urtekoa, ‘eztaitarre’ izena duena.

b) Euskal fandangoari egokitutako doinu bat, dantzatzeko dena eta ‘Andre Madalen’ izena duena. Doinu horri lotutako letraren edukia hauxe da, gutxi gorabehera: gizon batek emakume bati olioia erosi ondoren esaten dio bere aitak soldata jasotzen duen bitartean ordainduko diola”.

beraz, *Gernikako arbola* kantarearen lehenengo lekukotasun soinuduna. Grabazioetan, Donibane Garazi, Igorre, Azpeitia, Tolosa eta Atharratzeko kantari eta musikariak ditugu entzungai, eta kantari eta musikari haien izenak ere badakizkigu, Trebischek utzitako dokumentazioari esker”.

Trebishen grabazioen mendeurrena betetzen delarik aurren, hizlari ibili da Lopez de Arana Alemanian, Etxepare Euskal Institutuaren Leipzig-eko Unibertsitateko Euskal Ikasketen atalean eta Berlingo Euskal Etxean. “Euskal kulturaren arlo jakin baten berri zabaltzeko ahal izan dut Alemanian: antzinako lekukotasun soinudunak”. ■



ERDIKO KAIERA

JORGE JAUREGI
DANTZARIA

«Publikoaren begirada beharrezkoa da dantza-lana erabat osatzeko»

Bruselan bizi da Jorge Jauregi, dantzari gasteiztarra. Beste askok bezala, Euskal Herria utzi behar izan du bere arloan profesionalki aritzeko. Dantza garaikidearen eremuan kokatzen bada ere, beretzat eszenak ez du arau jakinik espresatzeko garaian.

The Darling Scenes azken lana aurkeztera itzuli da Bilbora. Errealismo basatia eta abstrakzioa batzen ditu lanak.

| MYRIAM GARZIA |

Argazkiak: La Fundicion



Zein izan zen zure lehen kontaktua dantzarekin?

Lehen kontaktua ikusle gisa izan nuen, La Fundicion areto zaharrean egiten ziren dantza garaikideko lanak ikusten ari nintzela. Gasteizen ikasle nintzela klaseak hartzen hasi nintzen. Inprobisazio eta kontaktu tekniketan trebatu nintzen. Sorkuntzarako laguntza batzuk jaso nituen eta berehala pieza txikiak egiten hasi nintzen. Zaletu gisa aritu nintzen pare bat urtez lagunekin, eta 2001ean, Damian Muñozek deitu zidan lan baterako [dantzari gasteiztarra berau ere, Bartzelonan eta Milanen bizi da] eta Bartzelonan geratzearabaki nuen. Orduan hasi nintzen benetan dantzari lanetan.

Azkenean Bruselara joatea erabaki nuen, hango Ultima Vez dantza taldeak interesa piztu zidalako. 2009 arte konpainia horretan lan egin dut eta orain bakarlari gisa aritzen naiz. Datorren urtean beraiekin arituko naiz berriro ere, haien azken lana dela eta, biran.

The Darling Scenes bakarlari gisa aurkeztu duzu. Aurreko lanetan bezala, publikoarekin harreman berezia sortzen duzu. Begiratzen dituzu, seinalatzen dituzu, euren jarrera zeureganatzen duzu. Publikoa probokatzea gustatzen zaizu?

Lotura berezia sortzea maite dut, espazio eszenikotik harago zerbait proiektatzea. Probokatzea baino gehiago, publikoarekin konexioak bilatzen saiatzen naizela esango nuke, ez dut euren presentzia saihesten eta norbait begira badut, jakin behar dut erreala dela. Azken lan honetan bereziki, pertsonaia inguratuta sentitzen da, presentzia hori nabarmena da.

Sor daiteke sortzeagatik ala sorkuntzak beti izan behar du erakusteko xedea?

Beti ari gara sortzen sortzeagatik. Alabaina, batzuetan norabidea edota asmoak argitu behar dituzu, egituratu egin behar duzu egiten ari zarena, baina oinarrian osagai hori dago, sortzea. Erabat baliagarria da sortzea sortzeagatik, azken finean fisikoki lan bera egiten ari zara. Sortzen duzunean sortzeagatik egitea, edo dantzatzen duzunean dantza-tzeagatik, erabat zilegi da.

Publikoak beste dimentsio bat ematen dio antzezlari?

Jakina. Zerbait partekatzea, ikusia izan dadin, horixe da azken helburua. Trukaketa moduko bat sortzen da, eta kanpoko begirada horrek osatuko du egiten ari zarena. Horregatik, garrantzitsua da publikoarekin hitz egitea, haiek gustuko dutena zer den jakitea. Alderik interesgarriena da, kanpoko begirada horrekin antzezlana osatu egiten baita. Sorkuntza-ren azken xedea da, egindako lanak bueltan ekarriko duena interesatzen zait bereziki.

The Darling Scenes azken lan honetan, mugimenduaz gain, hitza ere erabiltzen duzu, hainbat joera eszeniko nahasten dituzu.

Bai, lan honetan hainbat erregistro ezberdin dago. Nire ibilbidearen antzekoa da, nahiko heterogeneoa. Azken finean, hori gara, zaku bat, non ibilian ikasitako guztia sartzen duzun, eta dena nahasten duzun. Oso gauza ezberdinak egin ditut, eta hori lan honetan ere islatzen da. Gorputzak, berez, espresibide gisa ezaugarri asko ditu. Diziplinatan banatu daitezke, antzerki-dantza bezala uler daiteke. Nire ustez, arte eszenikoak dira oro har. Azken finean, ahotsa ere gorputzaren ezaugarrietako bat da, komunikazioa lortzeko bidea. Musika tresna bat afinatzea bezalakoa da, nora heldu nahi duzun egindako lana komunikatzeko. Azkenean, era naturalean ateratzen zait, baina egia da erregistro asko dituela. Ez dago araurik. Mundu abstraktoa erre-alismo hutsa bezain baliagarria da, azken lan honetan erakusten den moduan. Unearen eta norberaren beharrezko arabera izan behar du sorkuntzak.

Bruselara joan zinen Euskal Herrian ez dagoelako dantzarientzat lanik?

Ez dago dantzari gisa profesionalki lan egiteko aukerarik. Eta ez dago dantzarientzako lanik, lehenengo eta behin, konpainia iraunkorrik ez dagoelako. Norberak sortzen du



Jorge Jauregi,
The Darling Scenes
lanean.

berea, eta zorte on! Ez da posible. Karrera profesional bat izateko kanpora joan behar da, lan bat sortu eta hori 100 bider erakusteko aukera izateko. Belgikan dantziariaren lanbidea beste lanbide bat gehiago da. *Free lance* lana nagusitu da han ere, baina konpainia baterako lan egiteko eta lan kontratu bat izateko aukera ere bada. Languntza iraunkorrak badira eta jendea hortik bizi da, familia osatzen dute, eta gainerakoak. Han hori normalagoa da, hemen bideraezina da. ■





1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.



Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com




KALAKAN taldea
Urriak 25, ostirala 21,30etan
Bastero Kulturgunean



Helduen Literatura

Annabel
Kathleen Winter
Erein, 2013



Gender trouble edo sexu/generoari bueltaka

ABUZTUAN, oporretan egoteak ematen dizun pausari esker, konturatu nintzen sexu-generoaren gaia benetan dela garai honetako kezka sozial garrantzitsua. Alde batetik, prentsa idatzian aspaldiko terminoa zekarren “Alemaniak hirugarren sexu bat ‘sortu’ du” titularra zuen berria irakurri nuen, eta beste alde batetik, Kathleen Winter-en *Annabel* elaberriaren itzulpena argitaratu zen gurean (2010ean ingelesez plazaratua).

Kanadako herrixka batean jaio den protagonistaren barne gatazka eta bere inguruan biziko duen gatazka soziala kontatzen dizkigu nobelak. Wayne deitzen da, baita Annabel ere. Gizon bezala sozializatzen da, baina “emakume bat du barruan, ezkutuan” liburuan irakurri ahal dugunez. Homosexuala da? Galdetuko diote irakurle batzuek euren buruari. Ez, ez da. Transexuala da? Galdetuko dute beste batzuek. Ezta ere. Intersexuala da, jaiotzean organo sexual femenino eta maskulinoak zituen gorputzean.

Lehenago esan bezala oso gaurko gaia, sexu-genero sistemarena eta honen muga eta arauena, eta horregatik hartu nuen gogoz liburu honen irakurketa. Baina... zer gertatzen da literatura komertzialak, best-seller izateko anbizioz idatzitakoak, horrelako gai bat jorratu nahi duenean? Ikus dezagun, *Los hombres que no amaban a las mujeres* edo *Cincuenta sombras de Grey*, adibide ezagunak biak, oso liburu salduak izatera heldu dira jorrotutako gaiaren gaurkotasun-berritasun horren ondorioz, baina... nolakoa da gai

hauen trataera? Zelan planteatzen dituzte emakumeen kontrako biolentzia edo harreman (sexual) sado-masokistak? Gatazka agerian uzten dute, arazo bihurtzen dute?

Annabel irakurtzean fikziozko pertsonaia intersexual baten bizitza ezagutuko dugu, baina ez digu berak hitz egingo, izan ere, narratzaile orojakilearen begiradatik ikusiko dugu, distantziatik. Bere gurasoen sufrimendua ere oso presente izango dugu. Bere harreman afektibo-sexualak azalekoak eta urriak izango dira, heterosexualitatea eta maitasun erromantikoa auzitan jarriko ez dituztenak. Ikuspegi moralista agertuko zaigu ongia/gaizkia eta egia/gezurra behin baino gehiagotan agertuko baitira bere gorputza hizpide denean. Sexu/genero sistemen binarismoa ere mantenduko da, “gizona edo emakumea izatea” erabaki beharko duelako eta genero identitate eta *performancea* ez direlako kritikoki bereizten gizonak horrelakoak eta emakumeak bestelakoak direla errepikatzen baita behin eta berriro.

El pozo de la soledad lesbianismoa tragikoki irudikatzen zuen nobela gogorarazi dit, eta gaiari buruz idaztea erronka polita dela uste dudan arren eta meritu hori aitortzen diodan arren, gai honi buruz interesa dutenentzat XXY pelikula gomendagarriagoa dela uste dut. ■

Amaia
Alvarez Uria



ANDRA MARI
restaurant

Elexalde Auzoa, 22 • Galdakao, Bizkaia
Tel.: 94 456 00 05 • www.andra-mari.com





INIGO DE AMESCUA

Jakinduria eta iraunkortasuna

EZOHIKO taldea da Capsula: Argentinan sortu bazen ere, Martin (gitarra eta ahotsa) eta Coni (baxua eta ahotsa) 2000. urtetik Bilbon bizi dira; Euskal Herriko taldeen artean kontzertu gehien eskaintzen dituenena da –atzerrian zein bertan–; eta, finkatutako helburuak eta gehiago lortu ditu. Musika modu ia obsesiboan ulertu eta bizi dute; eta horri, transmititzeko eta ikasteko duten gaitasuna gehituta, zuzeneko itzela dute.

Martin Guevarak Buenos Airesen sortu zuen taldea, eta bere heroia den Bowieren *Space Oddity*-n inspiratutako izena ipini zion. 1998an *Sublime* argitaratu zuten, punk, pop iluna eta psikodelia batuta. Gerora, Guevarak Coni Duchess eza-gutu zuen eta elkarrekin *Yudoka* diskoa grabatu zuten, AEBetako eta Australiako rock-garage eraginak ditu. 2000an Bilbon kokatu ziren, eta 2002an *Capsula* lana kaleratu zuten DDT Banaketak-en laguntzaz. Rock eta garage soinuak grungearekin ezkondu zituzten. Gaztelupeko Hotsak-ek hiru lan horiek berrargitaratu ditu berriki.

Bilbo bizileku, Europatik barrena hainbat bira egin zuten, furgoneta eta anpliak ia erre arte, eta hiriz hiri ikusleak eta kritika irabazi zituzten. 2006an Discos Liliput diskoetxeak *Songs & circuits* diskoa kaleratu zuen. Errepideak eta agertokiek ondu eta gogortu egin zituzten, musikari eta konposatzaile gisa asko hazi ziren, Guevarak Iggyren parera abesten du, eta garage-punk eta noisean murgiltzen dira. Hortik aurrera ez ditu ezerk gelditu. 2009an Bcore Disc-ek *Rising mountains* kaleratu zuen, *Rolling Stone* zein *Ruta 66* aldizkariaren aburuz urteko disko onenetarikoa. Lehenengoz Austingo *SXSW* jaialdi famatuan parte hartu zuten eta ordutik ez dute inoiz hutsik egin.

2008an Ivan Julian & Capsula izenpean *Naked flame* (Bloody Hotsak) argitaratu zuten. New Yorke-



Solar Secrets
Capsula
Gaztelupeko Hotsak

ko musikari-legenda Ivan Julianen (Richard Hell & The Voivods) kantuek osatu zuten lana eta argentinar-bilbotar hirukoteari esker gauzatu zen; 2011n *In the land of silver souls* argitaratu zuten AEBetan eta European. Sonic Youth-ekin lan egin-dako John Agnellok ekoitzi zuen diskoa.

2012an taldekideen amets handienetako bat gauzatu zen: Bowieren *The Rise and Fall of Ziggy Stardust and the Spiders from Mars* diskoa zuzenean interpreta-tu eta Agnelloren laguntzarekin *Dreaming of...* (Gaztelupeko Hotsak) diskoan hilezkortu zuten.

Bowierekiko miresmenaren zirkulua ixtear dago. Bowieren ekoizle eta laguntzaile den Tony Visconti Capsularen kantuak entzun eta *Solar secrets* ekoiz-teko baimena eman zuen. Diskoa rockeroa da era-bat eta kutsu estatubatuarra dauka, glam eta 70eko hamarkadako hard-rocka gehiago azaleratuta, baina barra-barra edaten du bluesetik, stonerretik, psiko-deliatik, power-popetik, post-rocketik, garagetik, punketik zein new-wavetik... Izan ere, Capsulak lortu du soinu klasikoa (eta boteretsua) eskaintzearekin bat, modernoa, gaur egungoa ere erdiestea. ■

Iker Barandiaran





Bilboko BAD jaialdia Taula beltza

DATORREN URRIAREN 23AN hasi eta azaroaren 3a bitarte egingo da Bilbao Antzerki Dantza garaikidearen jaialdia (BAD). XV. edizioa dugu aurtengoa, eta zenbaki honek erakusten du antzerki eta dantza garaikidea ez dela gutxiengoaren kontua; hasi zenetik, 1998an, publikoaren erantzun ezinhobea jasotzen duela-ko jaialdiak, eta urtez urte egonkortzen joan da. Euskal Herriko eta nazioarteko 21 konpainia ikusiko ditugu aurtengo egitarauan, horietatik 12 erabateko estreinaldiak izango dira. Gainera, 3 ekoizpen propio bultzatu ditu jaialdiak.

Erakusketa espazioari dagokionez, Bilboko zenbait aretotan barreiatuko dira antzezlanak, batzuk jada ohikoak, beste batzuk berriak: La Fundicion, La Merced Ikastetxea, Bilbo Arte, Consonni arte garaikidearen ekoiztetxea, Arteria antzokiko Kupula aretoa, Arriaga antzokia, Barrainkua kultur etxea, Guggenheim museoa.

Baina badira bi antzezlan ohiko espazio eszenikotik harago doazena. Kataluniako El Conde de Torrefiel antzerki taldeak “Observen como el cansancio derrota al pensamiento” lana aurkeztuko du Deustuko polikiroldegian, azaroaren 2an, arratsaldeko 19.00etan. Espazio eszenikoa saskibaloi kantxa izango da, eta saskibaloi jokalariei berezi batzuk izango ditu protagonista.

Beste espazio berezi bat, Blanco Roto antzerki konpainiak erabiliko duena. Izan ere, Euskal Herriko eta

Kataluniako antzezleak biltzen dituen antzerki taldeak Renault Dacia Gaurisa autoaren barruan eskainiko du *La Ruta* antzezlan. Lan honen emanaldiak urriaren 25ean eta 26an izango dira, 18.00etatik aurrera, baina aldiko hiru ikusle basterik ezinongo dira sartu autoan, Laia Ricarte eta Oskar Garcia antzezleekin batera, hirian barrena ibilbide berezia egiteko.

Eklektikoa eta anitza

Antolatzaileek aurtengo eklektikotasuna eta diziplina aniztasuna nabarmendu dituzte.

Arte eszenikoetan azkenotan ematen ari diren joera berritzaileen ondorioz, zaila da askotan hitza (antzerkia) eta mugimedua (dantza) bereiztea. Askotan dantza taldeek hitza erabiltzen dutelako euren lanetan, eta antzerki taldeek beregatzten dituztelako dantza garaikidean ematen diren kontzeptuak eta joerak. Dena nahastea da arte eszenikoetako joera, azken finean espazio berean, taula beltzean gertatzen baitira biak. Performantzak ere izango du tokirik jaialdian.

Euskarazko antzerkiak presentzia eskasa du jaialdian, aurreko urteetan bezala. Halere, ez dira faltako bertako dantzariak eta antzezleak: Idoia Zabaleta, La Ortiga antzerki taldea, Khea Ziater, Gaitzerdi antzerki taldea —aurten 25. urteurrena du—, Pablo Marte, Nuria Perez dantzaria edota Sleepwalk Kolektiboa.



Euskara hutsez izango diren antzezlanen artean Moon Produkcioen *Giza abotsa* dugu aipagarri, urriaren 28an La Merced Ikastetxean, 21.30etan. Bestalde, Macarena Recuerda antzerki taldeak *Norenak dira begi horiek?* antzezlan elebiduna aurkeztuko du, ingelesez eta euskaraz. Mauma taldeak *Elkarrekin Bakarrik* taularatuko du euskaraz, working progress moduan. La Fundicion aretoan izango da, azaroaren 1ean, arratsaldeko 19.00etan.

Azkenik, Artedrama, Dejabu Panpin Laborategia eta Le Petit Theatre du Pain antzerki taldeek elkarlanaren azken fruitua erakutsiko dute, *Hamlet* obra klasikoaren euskarazko egokitzape-na, Arriagan, azaroaren 3an, 19.00etan. ■

Myriam Garzia



Pestizidak ardoetan, araurik ez



FRANTZIAKO KONTSUMITZAILEEN ELKARTEAK 92 ardo beltz, gorri eta zuri aztertu eta guztietan pestizida zantzuak atzeman ditu. Aurkitutako kantitateak txikiak izan dira kasu guztietan, toxikotzat har daitekeen mailatik behera, adierazi dutenez. Baina, aldi berean, gai horren inguruan lege-araurik ez dagoela ohartarazi dute.

Mahats eta fruitu gehienek, kontsumituak izan aurretik, Europak ezarritako Hondakinen Gehienezko Muga (LMR) bete behar dute, baina fruitu horietatik ateratzen diren zukuetaarako —ardoak barne— ez dago LMRaren antzekorik.

Mahatsean pestiziden maila kontrolatuta izateak nolabaiteko segurtasuna eman lezake ardoari dagokionez, baina zer gertatzen da egunero edo maiztasunez ardoa edaten bada? Pestiziden metaketak eragin kaltegarriak izan ditzake osasunean? Eta ardoa egiteko mahatsei osagai kimiko artifizialak ezartzen zaizkienean...

Inongo ardoren etiketan ez dugu ikusiko pestiziden edota antzeko substantzien kantitateen berri ematen duen testurik, ez baitago bere kabuz hori neurtzen duen ardogilerik. Egoera horren aurrean ematen diren aholkuak jaki guztientzat ematen direnen antzekoak dira; ardoetara ekarriz, hauxe esango genuke: saiatu leku eta mota desberdinetako ardoak edaten, horrela substantzia zehatz batzuen metaketa ekidingo baitugu. ■



Mexikon antzinako elikadura ohituretara itzuli nahian



ELIKADURARAKO eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO) behin baino gehiagotan aholkatu du intsektuak kontsumitzea goseari aurre egiteko.

Ez dakigu aholku horren eraginez izan den, baina Mexikoko gero eta jatetxe gehiagotan ari dira intsektuak eta horien arrautzak eskaintzen menuetan.

Intsektuak, oso ugariak izateaz gain, proteina iturri bikaina dira. 100 gramoko behi-xerra batekin har-

tzen dugun proteina kopurua 50 gramo matxinsalto janez lortzen da. Beraz, gizentasunari aurre egiteko ere balio du intsektu janak. ■



Koleraren kontrako txertoan hobekuntzak

Koleraren aurako txertoa beste era batera ekoizteko bidea ireki du EHUKo Farmazia Fakultateko Marta Pastorrek. Sistema berrian, txertoa osatzen duten antigenoak mikrokapsuletan gordetzen dira, eta horrek abantailak dakartza dosia neurtzean, manipulazioan eta garraioan.

ttiki.com/55710
(Euskaraz)

Zaldi robota

AEBetako laborategi militar batek zaldien antzera lau hankan ibiltzen den robota sortu du: Wildcat. Gerretan soldaduei laguntza eskaintzeko tresna omen den honek orduko 25 kilometroko abiadura har dezake. Ikerketa ez da hor amaitu, eta hurrengo urratsa abiadura bikoiztea izango da.

http://ttiki.com/55711
(Frantsesez)

Kafea eta tea gibelaren lagun

AEBetako eta Singapurreko hainbat unibertsitatetako ikerlariek elkarlanean egindako ikerketaren arabera, egunero lau kikara kafe edo te hartzea lagungarria izan daiteke gibel gantzatsu ez-alkoholiko izeneko gaitza dutenentzat. Diabetesa edo loditasuna daukatenen %70ek jasaten dute aipatutako gaitza; oraingoz, ez dago haren aurkako tratamendurik, dieta egokiaz eta ariketa fisikoaz harago.

ttiki.com/55801
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Inaurkinetan

HOSTOA ETA ORRIA. Eta hostoria. Guk hostoa hitza ikasi genuen txikit. Orria soilik pinuarenari deitzen erabiltzen zen, pinuaren orria. Beste guztiak hosto. Eta liburuak jaten hasi nintzenean, orrialdeak gora eta orrialdeak behera. Hostoaldea ez al zen hobe? Orduan ikasi nuen hostoari, hosto zapal lau xafla itxurako horri orri ere deitzen zaiola. Eta, ufako baten ondoren, lasai jarraitu nuen orrialdez orrialde.

Orbel giro da. Gaur egun aziendaren azpitarako ez da asko behar: azienda gero eta urriago eta dagoenari lastoa edo zerrautsa zabaltzen zaio hankapean. Bat ere azpirik gabe etzaten denik ere bada, burdinazko sarean... Horrelakoa da gero eta esne-azienda gehiago: ardi asko eta, jakina, gure behi gehien-gehienak. Ez dituzte beren arbasoek adarrak tentetzen! Esne greba berehala genuke. Izan ere, garai bateko orbelezko ohea bezalako gutxi; baita geuk ere.

Ohe ederra da garoa ere. Ez hosto eta ez orri ez da garoarena, hostoria baizik; hosto ebakidura sakon ugariz pikatua. Garo meta bat atarian duen ukuilua lau izarreko zenbait hotel baino hobe da. Iraila piztean gorritzen diren garomenak moztu eta ihartuta etxeratzten dituenak, aziendaren atsedenean pentsa-

tzen du. Abaroa buruan duenak lehenik jatenak zaindu ditu. Burdinazko sare baten gainean lo egiten duenaren aldean, ederki elikatuko dute inaurkinetan lo harrarazten dutena. Horienak bakarrik jatea eta edatea hobe genuke.

Artaburuen artobero usain harrokoa urte osoan aditzen bada ere, hemendik aurrera helduko dira artaleak. Gero arta zuztarrak jasoko. Zuztar hori ere ez da nolanahiko azpi. Ukuiluan zuztarra, logelan zurikina. Artazuriketan buruari kentzen zaizkion hostoak dira zurikin. Garai batean, luma hauta finez ez, baizik eta zurikinez beteak izaten ziren lastairak.

Pinu orria ere ez da azpi txarra. Inoiz ez dut oherako inaurkin bezala ezagutu, baina gero eta usargo darabilgu landareen azpitan. Pinu orriak belarra haztea nekeza- go egiten duenez, jorra lanak urritzeko erabiltzen da batez ere.

Hosto, orri, hosto- rri, orbel, zurikin... onena, inaurkin horiekin sortzen den simaurra. Simaur onena. ■



Pinu orri pila. Jorra lanak urritzeko erabiltzen da.

JAKOBA ERREKONDO



INAKI SALSAMENDI



Aurten ez da giro

Klimak eta eguraldiak nahiko hizpide jarri dute aurten. Negua epeletik joan zela, udaberria urasetuta etorri, uda berandu eta motza... Eta ondorioz gerezi gutxi, intxaurra eta hurra eskas, sagarra urri eta atzera... Baratzezaleek dute udaraero hizpide. Aurten entzun ditudanekin *Enskaldunon tomateak* entziklopedia idazteko adina material bazen.

Babarruna aldiz aspaldiko txukun eta berdinen etorri dela esan dezaket. Gure herriko erriberetan, behintzat. Jeneralean babarrun sailean bi edo hiru bildualdi egiten dira, lekak heldu ahala jasotzeko. Eta batetik besterako tartean euriak zeresan handia du. Aurten, baina, gauzak bestela etorri dira. Hona argazki adierazgarria. Babarrun uzta osoa, pardan behetik gorainoko leka guztiak bataratsu heldu dira. Alde ederra, bildualdi bakarra! Lorea berandu eman eta denak batera etorri... ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Pentsio murrizketa Elkanorentzat



GETARIA EXPERIENCE

SAN LUCAR DE BARRAMEDA (CADIZ), 1522KO IRAILAREN 6A. Victoria ontzia portura iritsi zen, munduari lehenengoz bira eman ondoren. Handik gutxira, Magallanes hil eta gero espedizioaren burua beregain hartu zuen Juan Sebastian Elkano audientzian hartu zuen Valladoliden Karlos V.a enperadoreak, eta burututako balentriaren ordainetan, urteko urrezko 500 dukateko pentsioa eta *Primus circumdedisti me* (Bira eman zidan lehena) idazkuna zuen harmarria agindu zizkion getariarrari. Harmarria jaso zuen itsasgizonak, baina sariaren arrastorik ez.

Hala ere, munduari bira eman ondoren Victoria ontzia hondasunez gainezka ekarri zuten (8,5 milioi maravedi) eta hiru urte geroago Elkanok beste bidaldi batean inbertitu zituen irabaziak. 1525an García Jofre de Loaisa komandante eta Elkano ontzizain nagusi zituen espedizioa A Coruñatik Moluka uharteetara bidean abiatu zen; Elkanoren hiru anaia, koinatua eta hainbat lagun ere eskufaiako kide ziren. Juan Sebastianen ama alarguna, Katalina del Puerto, eta familiako gainerako kideak lehorrean geratu ziren, bakarrik eta txirotuta. Garaiko kroniken arabera “behar eta neke larrian” zeuden. Familiako hondasunak armadari saldu

zizkion aurrera egin ahal izateko, eta zer saldu ere izan ez zuenean, koroarengana jo zuen hark semeari agindutakoa kobratu asmoz.

Katalinaren auzia burokraziaren armiarma sareankorapilatuta geratu zen; Elkanoren heriotza egiaztatu arte errege altxortegiak ezin omen zion dirurik eman. Juan Sebastian Elkano 1526ko abuztuaren 4an hil zen Moluketan, eskorbutoak jota, urte batzuk lehenago hotsandira eramanean zuen Victoria ontzian. Baina espedizio hartatik bizirik irten ziren gizon apurrak ez ziren Lisboa iritsi beste 10 urte pasa arte. Horrenbestez, Elkanoren testamentua 1536an iritsi zen Valladolideko gortera, Andres Urdanetaren eskutik. Ordurako koroak 7.000 dukat (edo ia 2,5 marabedi) zor zizkien Elkanoren oinordekoei. Hainbat iturriren arabera, elkanotarrak urtean 150.000 marabedi (agindutakoa baino gutxiago) jasotzen hasiko zirela erabaki omen zuen altxortegiak, baina pentsio murriztu hura ere sekula jaso izana frogatzen duen dokumenturik ez dago.

Hala, munduari bira ematen lehena izatearen ordainetan, Elkano familia alargunez eta umezurtzez bete, txirotu eta desgina egin zen. ■



Arrastoak

Europako ardorik zaharrenak 6.000 urte ditu

DIKILI TASH PROJECT



DIKILI TASH aztarnategi neolitikoan (Grezia) milaka mahats hazi eta azal sakatu aurkitu dituzte kiskalita, zeramikazko morkotan nahiz lurrean barreiatuta. Zeramikan azido tartarikoa topatu dute, eta horrek fermentazioa gertatu zela adierazten du. Arrastoak erradiokarbono bidez datatuta, “ardoa” K.a. 4.200

urtekoa dela ondorioztatu dute, baina aurkikuntza ezin dute erabat egiaztatu, litekeena baita muztioa nahigabe fermentatu izana. Gainera, hipotesia baieztatuz gero ere, ez litzateke munduko ardorik zaharrena, Irango Hadji Firouz kokalekuan K.a. 5.000 urte inguruko ardo arrastoak aurkitu baitzituzten. ■

Madrilgo Kongresura, Gasteizko Legebiltzarrean barrena

XVII. mendetik hona dago Trebiñu Burgosen menpe. Urteak dira trebiñutarrek beren gogoa adierazi dutela, Araban bizi dira, Arabako lurretan dira, Arabako izan nahi dute administrazio zereginetarako ere. Orain, Lege Organikoaren proposamena egin dute Gasteizko Legebiltzarrean, auzia Madrilgo Kongresuraino hel dadin, probintziaren mugak alda ditzaten. Trebiñuko alkate Ignazio Portilla eta zinegotzi Eugenia Galarreta mintzatu zaizkigu.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero



Ignazio Portilla alkatea eta Eugenia Galarreta zinegotzia, Trebiñuko udaletxearen arkupeetan.

Zer dugu beti? Aldiro-aldiri, Trebiñuk hedabideetara egiten du jauzi...

Ez da gezurra. Diozunez, aldiro-aldiri, Trebiñuren hotsa aditzen da. Hala ere, horrek ez du esan

nahi Trebiñu hedabideetan azaltzen ez denean gu geldirik gaudenik, ez garela ezertan ari. Ez. Beti ari gara arazo hau konpontzeko lanean. Batzuetan intentsitate han-

diagoa jarrita, besteetan txikiagoa, baina beti hor, lanean. Hortxe dago problema, arazoa, eta hedabideetan azaldu, ez azaldu, hor dago beti.



“Gaztela-Leonek gure eskariari baietz erantzun izan balio ere, hala ere, Madrilen onespena beharko genukeen. Hura gabe ez dago ezer”.

Problema da, beraz.

Eta ikaragarria, gainera. Trebiñu-
rentzat, eta Trebiñukoak garenont-
zat. Administrazio marko honek
zailtasun eta egoera gaitzak eragiten
dizkigu, era guztietakoak. Dela osa-
sun arloan, hezkuntzan eta, oro har,
zerbitzuak emateari dagokionean.
Gauden moduan gaude, prekarieta-
terik gorrienean. Gaztela-Leonek
ez digu behar dugun zerbitzurik
ematen eta, nahitaez, Arabara eta
Euskal Herrira jo behar dugu,
laguntza eske, gure beharrak asetze-
ko. Gaztela-Leonen mende egoteak
zer dakarren ulertzeko baliagarri da
irakaskuntzan gertatzen ari zaiguna
ikustea. Trebiñuko konderrian ikas-
teko adinean dauden ikasleen %65
Gasteizera joan beharrean daude
—hiru urte dituztenetik!—, euskaraz
ikasi nahi baldin badute. Hemengo
ikastetxeetan ez da euskara eskain-
tzarik batere egiten, eta, aldiz, Tre-
biñu euskarari lotuta dago, Araba
osoa bezala. Hortaz, hemen ikasten
geratzen badira, ez dute bertako
hizkuntz errealitatearekin bat egi-
ten. Arazoa bihurritu egiten da,
urteak aurrera, hamasei-hemezortzi
urte betetzen dituztenean, gazte
horiek Gasteizen egiten baitute
bizimodua.

**Ikasleak ikastera kanpora joateak ez
al du geroan exodoa areagotuko?**

Arriskua benetakoa da: hemengo
eskola publikoa desagertzeko arris-
kua dago. Trebiñuko jendearen
eskaera euskarazko eremuan dago,
Arabaren nagusi den eremuan, alegia.
Horrelakorik eskaintzen ez bada,
gero eta ume gutxiago geratzen dira
bertako eskolan, eta modu artifizial-
ean eusten diote eskolari, ez baita-
go nahiko ikasle eskola publikoari
behar bezala eusteko. Eskaria bat
delarik, eta eskaintza beste bat, gaz-
teak badoaz. Eta adibide bat baino
ez da hezkuntza.

**“Erraldoiaren urratsa da
Trebiñu Espainiako
Kongresura heltzea,
erantzuna aldekoa nahiz
kontrakoa izan”**

**Lege Organikoaren proposamena
landu duzue, eta ezustekorik ezean
onartuko du Eusko Legebiltzarrak.
Zergatik?**

Alternatiba bat izan da. Probintzia-
ren mugak arautzea EAEko eta
Gaztela-Leongo erkidegoen estatu-
tuetan dago jasota. Hain zuzen, bi
erkidego horien kasuan baino ez
dago mugak arautzea bataren eta
bestearen estatutuetan jasota.
Beraz, estatutuaren bidea jo genuen

begiz, eta hortik abiatu gara. Guk
zirrikitu bat ireki nahi izan dugun
guztietan, Gaztela-Leonek blokeoa
ezarri du. Guk txostena landu
dugun aldiro, haiek “Ezezko txoste-
na” esan eta kito, besterik ez dute
erantzun. Horregatik jo dugu
mugak aldatzera, hori egitea Estatu-
ko erakundeei dagokielako, Lege
Organiko bidez. Eta horrela abiatu
gara.

**Eusko Legebiltzarraren bidez egin
duzue...**

Bai, udalek ez dutelako Espainiako
Kongresura jotzeko ahalmenik.
Horregatik jo dugu Arabako eta
Euskal Herriko alderdi politikoeta-
ra, gure asmoari bidea egin ziezaio-
ten Eusko Legebiltzarrean. Ekime-
na legala eta legitimoa da, eta hortik
jo dugu. Testua ere idatzi dugu,
alderdien esku utzi dugu, eta Madri-
len bidera diezaguten eskatu diegu,
egoera behin betiko konpontzeko.
Eta horrelaxe egin dute, eta onar-
tzeko bidean da.

**Gaztela-Leongo erakundeei ez dute
esatekorik?**

Madrilek du hitza, hango diputa-
tuen kongresuak. Gaztela-Leonek
gure eskariari baietz erantzun izan
balio ere, hala ere, Madrilen onespe-
na beharko zukeen, hau da, Madril-
go kongresuak tramitatu beharko
zukeen, hark du-eta azken hitza.
Hura gabe ez dago ezer. Txostena
Trebiñun sortu da, bertan landu
dugu gai honetan aditua den aboka-
tu talde baten laguntzaz. Udal garen
aldetik guk ez daukagunez Lege
proposamena Madrilen tramitatzeko
ahalmenik, Eusko Legebiltzarrak
gingo digu zubi-lana. Azken
finean, Madrilek erabakiko du, bi
erkidegoetako estatutuek esaten
dutena gorabehera, Madrilek badu-
eta probintzien mugak aldatzeko
ahala.

**Hemen onartuagatik ere, Alderdi
Popularrak erabateko gehiengoa
duelarik Madrilen, uste duzue Espai-
nien ere onartuko dutela zuen propo-
samena?**

Jakina, hor dago estatuko PP. Baina
hemen ere ezezkoan zeuden hasie-
ran, eta gero zalantzak izan dituzte.
Guk aho batez onartzea nahiko

genuke, esan beharrik ez dago hori... Burgosen ere, lehen gure tesiaren kontra zeuden beti, denak, eta orain bestelako ahotsak ere entzuten hasi dira. Beraz, hor ere bada zirrikiturik... Badakigu, proposamena Gasteizen onartuagatik ere, Gaztela-Leongo PPK eragiteko indarra duela... Guztia ere, erraldoiaren urratsa da Trebiñu Espainiako kongresura heltzea, erantzuna aldekoa nahiz kontrakoa izan, tramitazioa zeinahi dela ere. Izan ere, Gaztela-Leonek, Burgosek, ez du batere argudiorik aurkeztu oraingo egoera iraunarazteko –legeak babesten dituela, besterik ez dute esaten–, eta Espainiako Kongresuan ere ez dute argudiorik izango Trebiñuren egoera iraunarazteko. Beraz, guri baietz esan, edo ezetz, irabazi handia dugu.

Argudiorik ez dutela diozue...

Ez. Esango didazu, nola justifikatu behar duten anakronismo hau. Hainbeste diru alferrik xahutzen ari dira, eta, bestalde, “administrazioen arrazionaltasuna” ari dira aldarrikatzen. Kontraesana, begibistakoa. Politika izango da ikustea nola lotzen dituzten biak!... Gu, hain zuzen, gaia arrazionalizatzeko ahaleginak egiten ari gara, kontua ez baita Trebiñuko konderria, bakarrik. Trebiñu inguruko herriak ere noiztzen ari dira egoera. Trebiñuren egoerak Gasteizera begira bizitzera behartzen ditu herri horiek ere, Trebiñun bertan ezer harmonizatzeko aukerarik izateke. Zenbait zerbitzu erabili nahi izanez gero, Gasteizera joan behar du Trebiñuko jendeak, eta inguruko herrietakoak. Askotan, hantxe erroldatu behar du... PPK ere azaldu beharko du zer den “arrazionalizatzea”. Nahi dutena besterik ez ote duten arrazionalizatzeko, alegia.

Zergatik oraindik horrela?

Hemen ez dago petroliorik, ez dago diamante meategirik... Zein da, beraz, interesa? Gaztela-Leondik esaten digute batz bestea hango erkidegoan gastatzen dutena baino gehiago gastatzen dutela Trebiñun. Eta baliteke, egia izango da, baina eskola publikoa %25ean eustea



“Trebiñuren egoerak Gasteizera begira bizitzera behartzen ditu inguruko herriak ere, Trebiñun bertan ezer harmonizatzeko aukerarik izateke”.

garesti zaie, diru asko da. Zergatik eusten diote egoera honi? Jabegoa auzia balitz bezala jokatzeko dute, tirria dute, autonomi erkidegoen arteko borroka edo halako zalapartaren bat, Trebiñuk eskatzen eta behar dituen zerbitzuei erantzun beharrean.

“Aspaldi konpondu behar zen, baina ez da izan lana gogoz egiteko konpromisorik. Ea oraingoan aurrera egiten dugun”

Uste duzue, oro har, Trebiñuk nahiko babes jaso ohi duela Euskal Herriko erakunde eta gizarte eragileen alde-tik?

Bai eta ez. Trebiñuk egin duen proposamena zenbait alderdik bere egin dute. Alegia, tramitatu ez ezik, bere egin dute. Beste batzuek, legezko eta legitimotzat hartu digute, lege ahalmenik ez dugula ikusi eta tramiterako onartu digute... Oro har, Euskal Herriko erakunde eta eragileek ez dute beti Trebiñuren arazoa bere egin. Beti ez. Eta horretan ez dugu alderdi politikorik ez erakunderik bereiziko. “Gizajo-

ok! Lagundu beharra dugu!”. Eta auzia ez da hori. Nahi beste argudio dituzte Trebiñuren auzia bere egiteko. Trebiñuk eragin eta distortsio ikaragarria du, baina ez bakarrik Trebiñurentzat, inguru osoarentzat baizik: direla azpiegiturak, direla garapen plan estrategikoak... argudioak nahi beste dira, hau adabaki bat da, erdi-erdian jarritako txapla, plan osoak ganoraz burutzea galarazten duena... Beretzat hartzeko nahiko arrazoi badituzte erakundeek eta eragileek, baina, orain arte, “Trebiñu Araba da!”, “Zuekin gaudel!”, eta askoz gehiago ez dute egin.

“Trebiñu Araba da!”...

Oso slogan polita da, erakargarria ere bai, nahi baduzu, baina hori gauzatzeko garaian ez da behar bezala lan egin. Bestela, hainbeste urte problematika hau mahai gainean dugula eta konponduko zuketena, ezta? Auzi politikoa da, Gaztela-Leonek “Trebiñu gurea da, gurea!” dio. Aspaldi konpondu behar zen, baina ez da izan lana gogoz egiteko konpromisorik. Ea oraingoan aurrera egiten dugun. Guretzat garrantzi handikoa da Eusko Legebiltzarrerara iristea, eta hortik Madrilgo Kongresura. ■



Bahiketen puzzle osatugabea

Sekula ez da jakiten bahiketa bat nola burutu den. Pausoz pauso, bahitua aske geratu denean, puzzlea osatzen saiatzen da. Pieza asko izan ohi dituzte puzzle horiek eta inoiz ez dira bukatzen, toki garrantzitsuan beti falta delako piezaren bat. Irudia, izan zitekeenaren itzal bihurtzen da, eta bakoitzak bere interpretazioaren arabera betetzen du hutsunea. Nork? Zergatik? Nora? Galderak sortzen dira orduan bahituaren buruan.

| ANDONI LUBAKI |

Argazkiak: Bostok Photo

SIRIAKO GAZTAKA denon ahotan dabil azken aldian. Assad eta matxinatuak kolpez kolpe Estatua suntsitzen ari dira. Zibilizazioa hasi omen zen Siria inguruan eta askotan bertan bukatuko dela dirudi. Errefuxiatuak milioika, hildakoak milaka eta tartean bahituak gorantz doaz. 30 kazetaritik gora omen daude bahituak. Halere zaila da zehazki zenbat eta nortzuk diren jakitea, lehen ez bezala, kazetarien artean *blackout* deritzona hedatu baita. Ezin da ezer konfirmatu, ez esan, hori da *blackout*. Isiltasunak segurtasuna esan nahi du, segurtasunak bizitzaren jarraitzeko aukera txiki bat.

Irailaren hasieran jakin zen Kataluniako kazetari zaildua, Marc Marginedas, bahitua zegoela Sirian. Hama hiritik gertu izan zela dakigu eta ez da beste ezer jakiterik eman. Zein taldek hartu duen misterio bat da gehiengoarentzat. Bahitzaileen eskaerak eta *modus operandia* bezala.

Halere ez da bakarra. Elkarte askoren esanetan 50 lagun inguru daude egoera horretan. Horietako asko siriarrak dira eta alde batekoen ala bestekoen hatzaparretan erori diren ere ez dakigu. Baina Europa eta Amerikako Estatu Batuetako egunkariei gutxi inporta zaie kazetari ezezagun horiei zer gertatzen zaien, ez baitira euren artekoak. Inor gutxi eskertzen baitie lana bertako informazioa lehen eskutik ematen digutenei. Ez baitute sinatzen artikulu edo argazkirik informazioa maneiatzen duten multina-



Siriako gatazkan bahiketak luzeak izaten ari dira. Austin Tice kazetari estatubatuarrek 14 hilabete daramatza bahituta.

zionalen artean. Iturri horrek balioa galtzen omen du Michael edo Johnny agertu partez, Mohammed edo Brahim agertzen badira.

Hortaz zenbakirik zehaztea zaila izaten da. Hala eta guztiz ere gehienetan bahituak espioitzat hartuak dira. Zilegitasuna ematen die hitz hori erabiltzeak bahitzaileei. Beste batzuetan gerra estrategia ere bihurtzen da bahiketa. Hango edo hemengo nazio batek alde batekoak edo bestekoak lagundu ditzan presionatzeko, adibidez.

Siriako gatazkan, presoaren ziegako estantziak luzeak izaten ari dira. Bada Austin Tice deitzen den estatubatuar kazetari bat zeinak 14 hilabete daramatzen bahitzaileen hatzaparretan. James Foley —hau ere estatuba-

tuarra— horren beste adibide garbi bat dugu. 347 egun pasa dira desagertu zenetik. Halere azken informazioek diotenez, Assad-en aldeko milizia batek bahitu zuen Idlib hiri inguruan eta Damascoko militarren kartzela batean omen dago.

Foleyren kasua berezia da. Lehen aipatutako *blackout* edo isiltasunarekin amaitzea erabaki baitzuten familiak eta lan egiten duen egunkariak. Semearen berririk izan ez eta gurasoek telebista programa batean esan zuten ez zela “inongo espia, kazetari soil baizik”. Ez dakigu inongo erreakziorik izan zuen, berriro isiltasuna jausi baitzen kasu horren gainean.

Aske geratu direnek, aldiz, eurei gertatutakoa nola izan zen azaltzen



Kazetarien artean *blackout* deritzona hedatu da. Ezin da ezer konfirmatu, ezer esan, hori da *blackout*. Isiltasunak segurtasuna esan nahi du, segurtasunak bizitzen jarraitzeko aukera txiki bat.

gutenean, bi egoera ezberdin aipatu ohi dituzte. Lehena, kontrako milizia baten eskuetan erori zela, toki eta une txarrean egoteagatik. Assad-en aldeko miliziak izaten dira gehienetan horrela jokatzen dutenak. Bigarrena, matxinatuen lurraldean gertatzen da. Kazetariaren inguruko norbaitek –konfiantzazkoa dela uste dena– diru truke informazioa saldu egiten die bahitzaileei. Non eta zeinekin egongo den, armatuak doazen ala ez...

Bi kasuetan denboraldi bat igarota, telefono deiak dantzan hasten dira. Negozialetarako ezinbestekoa baita informazio gehien ahalik eta azkarren lortzea. Azkartasunak bahituaren alde jokatzen du beti.

Kazetariaren egunkariak, diplomatikoei eta beste hainbeste elkarrekin, isileko lana egiten dute. Familia informatua mantentzen saiatzen dira. Gobernu askok familiari psikologo bat jartzen die estresa eta frustrazioa arintzeko. Diplomatiako askoren esanetan, senitartekoei azken informazioak kontatu edo ez kontatzea lan zaila eta arduratsua izaten da. Gezurrezko informazio ugari dabil egiazkoa bailitzan.

Non dira Mohammed eta Brahim?

Siriako kazetarien kasuan ez da berdina gertatzen. Multinazionalentzako irudiak, bideoak eta testuak idazten dituzten herritar soilak dira. Gerra hasi baino lehenago, horietako askok behintzat, kazetaritza ikasketak burutu zituzten eta Assad-en aurkako altxamendua hasi zenean alde batean edo bestean harrapatu zituen nahi gabe. Siriarrak izan eta gatazkan kazetari jarduteak lerroka-

Siriarrak izan eta gatazkan kazetari jarduteak lerrokatzea esan nahi du. Askok badakite ez direla etxera itzuliko

tzea esan nahi du. Askok badakite ez direla etxera sekula bueltatuko, frontearen beste aldean baitaude. Askok lanak sinatzerako garaian ez dute benetako izena erabiltzen, familiako kide asko Assad edo matxinatuak dabiltzan lekuan bizi baitira oraindik.

Hauek bahitzean edo hiltzean inork ez du ahotsik jasoko, ez da nazioarteko kanpainarik egingo askatasun eske. Ez da deus egongo. Estatistika zenbaki ere ez dira izango, kameraren aurrean heriotza fotogenikoa bat izan ez badu behintzat, mundu “zibilizatuaren” morboa asetzeko. Ez da ez Mohammed kazetaria ez Brahim argazkilaria izango. Bahitua bada ez dugu ezertxo ere jakingo denbora luzez, ezta bere familiak ere, bi aldetako komunikazioa arras zaila delako.

Inoiz baino bahiketa gehiago ari da gertatzen gerra honetan. Askatu edo ihes egin dutenen deklarazio labur batzuk besterik ez ditugu entzuten. Bahitu askoren albisterik ere ez dugu, ez baitakigu horietako asko bahituta daudenik ere. Hauek saihestea ere zaila da, informatzen jarraitu beharrean baikaude, eta horretarako bertaratu egin behar. Puzzlea osatzen saiatzen bagara ere, falta den piezatxo horrek berriro arriskuan jartzen gaitu kazetariok, ez baitakigu geuk ere noiz, nola, zergatik... ■



«Negoziaziorik gabe TIL hilda dago»

Joan Huguet (Ferrerries, Menorca, 1954) PPko militantea da. Diputatu izan da, Menorcako Kontseiluko presidentea, Gobernuako presidenteordea, Parlamentuko presidentea, senataria... Gaur egun, irakaslea eta abokatua da. Balear Iretako (Herrialde Katalanak) presidente José Ramón Bauzàk ezarritako TIL (hiru eleko eredua) dekretu ezagunaren kontra idatzi du hainbat iritzi artikulutan.

| MIQUEL PAYERAS / EL TEMPS |

Gabriel Cañellas en Gobernu garaian onartu zen, 1986an, hizkuntza normalizaziorako legea. Baina PPko talde batek beti egin du adostasun horren kontra.

Bai, baina ia ikusezina izan da.

Zer gertatu zen 2007az geroztik, Carlos Delgado adar antikatalanistaren lider bihurtu eta bozken %30 lortu zuenean?

Zenbait gauza gertatu ziren. Orduko testuingurua gogoratu behar da. Kataluniako Estatutuaren erreformaren inguruan eztabaida sortu zen. Madrilen katalanaren aurkako historia handia sortu zen; hainbat hedabidek eragindako korronea izan zen. Etengabe aritu ziren: bateko, erkidego elebidunetan katalana gaztelanien aurka ari zela egiten; besteko, jendea baztertzen ari zirela gaztelaniaz hitz egiten zutelako... Giro horretan, Balearretako PPK porrot egin zuen 2007ko hauteskundeetan, Jaume Matas joan zen eta etxe barnean noraeza erabatekoa zen. Alderdiko sektore bat zeharo desengainatuta geratu zen, [ustelkeria] istiluak agertzen hasi ziren eta Carlos Delgado, egoera hartan, militante batzuentzat gauzak onera ekarriko zituen gizon bihurtu zen. Gainera, katalanismoaren aurkako programa nabarmena zeukan.

Delgadok 2008ko biltzarrean Rosa Estarásen kontra galdu zuen.



EFE

“Hezkuntzan katalanak toki zabalagoa hartu behar du egunero umeei jasotzen dituzten gaztelania input-ei aurre egiteko, hala nola, telebista, prentsa, familia, lagunak, publizitatea. Horren guztiaren %80 gaztelaniaz da”.

2010ean berriz aurkeztu eta Bauzàren aurka galdu zuen. Delgadok Bauzàrekin bat egin zuen eta gainera katalanaren estatusaren aurkako ideologia onartu zuen. Nola uler daiteke?

Nik uste dut Delgadoren eta Bauzàren arteko ituna 2010eko biltzarra baino lehenagokoa dela. Bauzàk Delgado bereganatu izana ondo iruditu zitzaidan, ona da irabazleak galtzailea kontuan hartzea.

Alabaina, gauza bat da pertsona taldean integratzea inor ez dela baztertzen erakusteko, baina inondik ere ez da logikoa galdu duenaren diskurtso politikoa besarkatzea. Ez dauka zentzurik. Argi dago Delgadoren tesiek gehiengo zabalez galdu zutela 2008ko eta 2010eko biltzarretan, eta hala ere, Bauzàk onartu egin zituen. Militanteek erabaki zutenarekin ez dauka zerikusirik.

Beraz, Delgadok bi biltzarretan galdu zuen, baina bere mezuak irabazi zuen.

Azken biltzarreko garaile handia, nahiz eta galdu, Carlos Delgadoren diskurtso ideologikoa izan zen. Ez da nire iritzia, egiaztapena baizik. Kontuz: ez naiz ari esaten hori ona ala txarra den, diodana da Bauzàk egiten duena, hots Delgadok eskatzen zuena, ez dela PPko militanteek biltzarrean erabaki zutena.

Presidente ez bada ari egiten militanteek bozkatutakoa zergatik PPko inork ez du egoera horren eta Bauzàren jarreraren aurka egin?

Aldaketa hauteskunderen ondoren nabaritu delako. Ez lehenago. Egia da susmoak bazirela, halako eta bestelako iritziak... Baina inoiz ez zen argi eta garbi ezer mahai gainean jarri, alegia, Delgadok esaten zuena onartzea. Hauteskundeak gehiengo zabalarekin irabazita gero dator aldaketa. Orduan konturatu ziren denak zer ari zen gertatzen. Baina ordurako Bauzàk Buletin Ofiziala bere eskutan zeukan, eta

horrek botere handia ematen du. Eta horren aurka...

“Katalana denentzat inposatu nahi zuen ezkerren dekretua astakeria zen eta orain TIL ezarri nahi den modua hanka-sartzea da”

Bauzàk dio hauteskunde programak jasotzen duela egiten ari dena.

Programak ez dio zehazki egiten ari dena. Egia da barne eztabaidak izan zirela katalanaren egoera legala erreformatzearen egokitasunaz, hau da, betebeharrekoa izatetik meritu izatera pasatzea administrazio hainbat sailetan. Eta ados nago, zenbait sailetan bai, baina ez denetan. Eta egia da TIL famatuaren espiritua badagoela programan, baina ez orain ezartzen ari den moduan. Garrantzitsua dela iruditzen zaidan gauza bat gehitu nahi-

ko nuke. Ez dakit PPk katalanarekiko halako jarrera izango zukeen baldin eta katalanistek aurreko *Pacte de Progrés*-en legegintzaldian egin zituzten gauza batzuk egin ez bazituzten. Zeren gogora dezagun Gobernuak [Antichenak] katalanizazio soziala inposatzen zuen dekretua onartu zuela eta Kontseiluak [Mallorcakoak] hornitzaileen kontratuak katalanez izatea ezarri zuela. Zentzugabeko gehiegikeriak ziren Balearretarako, ziurrenik beste toki batzuetakoa imitatu nahi zen. Min handia egin zuen. Ez daukat zalantzarik, jokabide hark [*Pacte de Progrés*] jarrerak [PP barruan] muturrera eraman zituen. Ultrakatalanistek, gutxienez, gaztelania katalanaren gainetik inposatu nahi dutenek adina min egiten diote katalanari.

Zure jarrera zein da?

Askatasuna eta oreka. Katalana denentzat inposatu nahi zuen ezkerren dekretua astakeria zen eta orain TIL ezarri nahi den modua hanka-sartzea da. Katalana zaindu



Bertsolari Txapelketa Nagusia 2013

KANPORAKETAK

LEGAZPI

Urbeltz pilotalekua

Urriak 19, 17:30ean



Ainhoa
Egirreazaldegia



Beñat
Lizaso



Igor
Elortza



Inigo Manteizidor
"Mantxi"



Iokin
Uranga



Oihana
Bartra

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEA



www.bertsozale.com

Inork nahi ez duen Bauzàren lege dekretua

BALEAR UHARTEETAKO PPren Gobernuak lege dekretuari esker, TIL (Tratamiento Integrado de Lenguas) hizkuntza eredua ezarri nahi du irletako ikastetxeetan. Gaur arte murgiltze eredua baliatu izan dute, hau da, hezkuntza komunitateko hizkuntza ardatza katalana izan da. PPren Gobernuaren iritziz hiru eleko ereduari esker, gaztelaniaz, katalanez eta ingelesez neurri berean irakatsiko duen sistemari esker, katalanaren inposaketa bukatuko da.

CCOO eta STEI sindikatuek eta Irletako Irakasleen Biltzarrrak bideratuta, hiru asteko greba egin dute ikastetxeetan Bauzà presidentearen asmoen aurka. Irailaren 29an ia ehun mila herritar bildu ziren Palman manifestazioan.

Gobernuarekin izan dituzten negoziazioetan ezer lortu ez badute ere, greba bertan behera utzi dute oraingoz. Sindikatuek adierazi dutenez edozein momentutan erabaki dezakete berriz ere greba egitea edo geldialdiak antolatzea. Ikasgeletara itzuli diren irakasleek ez dute TIL eredua jarraituko eta orain arte bezala murgiltze ereduarekin segiko dute.

O. Irureta Azkune

egin behar da, eta bultzatu, baina ez inposatuta. Bi hizkuntza ofizialen arteko oreka berebizikoa da. Aukeratzeko askatasun guneak egon behar dute. Adibidez, irakurtzeko eta idazteko garaian diren haurren gurasoek hizkuntza aukeratzeko askatasuna izan behar dute. Baina era berean, gainerako hezkuntza mailetan katalanak toki zabalagoa hartu behar du egunero umeek jasotzen dituzten gaztelania input-ei aurre egiteko, hala nola, telebista, prentsa, familia, lagunak, publizitatea. Horren guztia-
ren %80 gaztelaniaz da.



100.000 lagun atera ziren kalera irailaren 29an TIL ereduari ezetz esateko.

Bauzàren Gobernuan Hezkuntza kontseilari izan zen Rafael Boshen tesiekin lotzen zaituztela uste dut.

Bai, tesi zentzudunenak, neurritsuenak eta elkarrizketarako irekienak ziren.

Bauzàk apirilean Bosh kargutik kendu zuenean, itzulerarik gabeko bidea hasi al zuen presidenteak?

Hala da. Baina beste hau ere esan nahi dut: ez hezkuntzako sindikatuek ezta katalanismo moderatuak ere, ez zuten ulertu Boshen zer egin nahi zuen eta lepoa moztu nahi izan zioten. Denek lagundu zuten haren jarrera askoz gehiago ahultzen. STEIkoei [sindikatuak] askotan esan nien: "nostalgia". Bosh ondo ari zela ondorioztatzea zentzuzkoa da, kontuan hartzen badugu antikatalanistak ultrakatalanistak bezainbat zituela kontra. Erdian hezkuntza komunitatearen gehiengoa dago, haiek ez daude ez bateko ez besteko muturrekin. Boshen ez zen gertatuko orain ikusten ari garen hau. Ziur nago askok etsipenez gogoratzten dutela, bai horixe.

Bauzàk zergatik baztertu zuen Bosh?

Boshengatik gutxiespenez esaten da denak kontsolatu nahi zituela, diskurtso desberdinak zituela, eta halako batean Bauzàk horrela ez segitzea erabaki zuen. Baina Bosh egiazki oreka oso zaila gordetzen ari zen. Ondo ari zenaren froga da

joan denetik egoera ziztu bizian gogortu dela eta bost hilabeteen begira non gauden.

Badirudi Bauzàk ez daukala TIL sindikatuekin eta Irakasleen Biltzarrekin negoziatzeko intenziorik.

Bi aldeetatik akats larriak egin dira. Batekoek eta bestekoek, puntu batzuetan, gezurra esaten dute haien interesak tarteko. Baina Bauzà presidentea da eta ulertu beharko luke negoziatzeko ez badu TIL hil egingo dela. Ni TILen alde nago, baina ez nago ados ezarri nahi den moduarekin. Beste era batera egin behar da, mailaka, asko inbertituta. Negoziatorik ez badago, nahiz eta formalki inposatu, egiazki ezartzea ezinezkoa izango da irakasleek boikota egiten badute.

Zer nahi du Bauzàk?

Arerio askok oker epaitzen dute. Bauzà ez da ez inozoa, ez da bat-batean erabakiak hartzen ari eta ez da ezjakina. Oso bizkorra da, aurrez erabakitako bidai orria jarraitzen ari da hoztasun handiz eta helburuak oso garbi dauzka. Sinestuta dauka bere ustez inposizio katalanista denaren aurka borroka egin behar dela. Baina kontuz, bera ez da ari katalanaren aurka, hizkuntza bultzatzeko moduaren aurka ari da, alegia, era nazionalista eta katalanistaren kontra. ■



Desobedientziaren bide zaila

Espainiako Poliziak 12 orduz atzeratu behar izan du Luis Goñiren atxiloketa, Segiko kide izatea leporatuta sei urtez kartzelara zigortua. Iruñeko Alde Zaharrean izan da Barañaingo gaztea, kanean, Espainiako Justiziari desafio eginez. Azkenean astelehen goizaldeko operazio azkar eta erasokorrarekin atxilotu dute, 200 bat lagunek osatutako herri harresiak babestua. Hainbat pertsona zauritu dituzte borrekin. Sentsazio gazi-goza geratu da harresiko kideen artean.

| LANDER ARBELAITZ MITXELENA |

LUIS GOÑI urriak 13, igandearrekin, 14:30ean agertu da Iruñeko Nabarrerria plazan. Bertan ehunka pertsona ditu zain. Aurretik *Desobedientziaren Martxan* milaka pertsonak hartu dute parte eta ahoz aho zabaltzen da hitzordua berri. Jendeak berehala egin du tokia plazan eta harresia defentsarako osatu dute, kateekin esku-muturrak lotuta. “Ez gaituzue geldituko!” edo “Euskal gazteria aurrera!” oihuak entzun dira indar-



Polizia harresiko kideak banan-banan ateratzen.

tsu besteren artean. Tentsioa handia izan da, polizia etortzean zer gertatuko zen inork ez baitzekien. Baina Espainiako Gobernuaren Nafarroako delegatu Carmen Albak iragarritakoaren kontrara polizia ez da etorri, eta horrek antolatzaileen eskemak erabat hautsi ditu. Ez dago B planik egoera honetarako.

Eta orain zer? Galdera hori egiten diote kide askok elkarri orduak aurrera egin ahala lurrean eserita zeudela. Azkenean, 20:30ean, mikrofonotik azaldu dutenez, hainbat aukera aztertu ostean, bertan lo egitea erabaki dute eta jendea bertan geratzeko dei egin diote. AskeGunea izendatu dute plaza.

Euskal Herriko leku ugarietako jendea lotarako zakurik gabe joan da ordea Iruñera, Donostia eta Ondarroara ez bezala. Horrek ekarri du orduak aurrera joan heinean jendea etxera itzultzen hastea. Baina 200 bat

izan dira urriko igande hotz honetan Nabarrerria plazan lo egitea erabaki dutenak.

Azkenean, azalpenak entzun eta operazioaren entsegua egin ostean, lotarako prestatu dira. Alde Zaharreko bost puntutan egin dituzte zaintza txandak eta 01:25 bueltan hauek batek abisua pasa du, badator Polizia. Sirena jo dute eta denek euren tokia hartu dute. Elkartasunez, iturriaren bueltan eseri dira harresiko kideak Luis Goñi bera erdian zutik dela.

“Eutsi gogor ez askatu”, “Euskal gazteria aurrera”, “Jo ta ke, irabazi arte”, “Herri harresia aurrera!” eta “Ez gaituzue geldituko!” bezalako oihuek hartu dute plaza.

Agenteek Goñiren aurrean dau den guztiak arrastaka bortitz atera dituzte, baina jendeak gogor eutsi dio elkarri eta begietan eta sudurzuloetan hatzak sartu dizkiete. Opera-

zioaren erdian hainbat agente borrekin hasi dira, lurrean eserita dagoen jendea jotzen. Burua odole-tan lauzpabost pertsona zauritu dituzte, eta gutxienez bi pertsona ospitalera bidali dituzte.

Bost minutu iraun ditu operazioak eta sartutako leku beretik atera dira.

Lurraldean arteko ezberdintasunak ezberdintasun eta Iruñean halako ekimen- na 10 orduz aurrera ateratzea lortu arren, Donostian eta Ondarroan ez

bezala, harresiko kideek ez dute “Gaur guk irabazi dugu” sinetsi. Izango dute denborarik aztertzeko zer gertatu den eta hurrengo herri harresietarako ikasgaiak ateratzeko. AskeGunea antolatzea lortuko zutela ez aurreikustea eta maniobratzeko geldotasuna izan litezke horietako bi.

Dena den, antolatzaileek lorpen garrantzitsuak izan dituzte: jendearen konpromisoa bideratzea; arreata mediatikoa bereganatzea —Espainiako Estatuan *#FreeGoñi* eta *#HerriHarresia* Trending Topic izan ziren Twitterren arratsaldean eta gauean—; eta atxiloketen uneak eta poliziaren jarduna baldintzatzea. Desobedientzia zibilaren estrategia- rekin urratsak ematen jarraitzen du herri harresiak. ■

argia.com *Taupadak* blo-
gean Luis Goñiren atxilo-
keta uneko bideoa (14 min.)



EUSKARABILDUA JARDUNALDIK

Bestelako telebista ereduak interneten daude

Telebista mundu mailako boteregune dela agerian jarri eta edukietan dituen ajeak azaldurik, internetera jauzi egiteko gomendioa egin zuen Axier Lopez ARGIAko multimedia arduradunak, urriaren 11n Donostiako Koldo Mitxelenan. Interneten zer ikusi, pistak ere eman zituen.

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |

IAMETZAK, ARGIAK eta Ametzagaiñak elkarlanean antolatutako EuskaraBildua jardunaldiek publiko anitza bereganatu zuten. Multimedia izan zuten zazpi hizlariek aztergai eta galderetan parte hartze handia izan zuten entzuleek. Hitzaldia ematen azkena Axier Lopez ARGIAko multimedia arduraduna izan zen eta medioen jabegoan dagoen monopolioa azaltzeko datuok eman zituen: “Munduan 6 komunikazio enpresa erraldoiren esku daude telebistak, irratiak, egunkariak, aldizkariak, musika diskoak, liburuak eta film gehienak: Time Warner, Disney, Fox News, Viacom, Seagram, General Electric, Sony eta Bertelsmann. 5 berri agentziek mundu osoan kontsumitzen diren albisteen %96a sortu eta banatzen dute. Munduko informazioaren %90a AEB, Europa eta Japoniak banatzen dute. Telebistan zein dendetan ikus-entzunezko produktuen %80a AEBetako da”.

Telebistaren ajeak

Telebista errealitatearen isla dela eta beraz, merezi duguna daukagula esanik justifikatzen da programazioa. “Hori egun ameskeria da. Egunero ikusten ditugun edukien hautapenean dagoen hierarkizazioa ahaztea litzatekeelako”. Hautaketa horren ondorio den telebista eskaintzaren ajeak agertu zituen adibidez jantzirik: Fribolizazioa eta banalizazioa; sexismoa eta edertasun molde bakarraren apologia;



LANDER ARBELAITZ

Axier Lopez: “Telebista izatez zerbitzu publikoa da eta 80ko hamarkadan berau pribatizatu izanak audientzien lehia eta espektakularizazioa ekarri zuen telebista denetara, baita kate publikoetara ere”.

albiste andana emanik ere hausnarketa itotzea; Ipar ikuskera, eurozentrismoa barreiatzen duela mundu osora; emigrazioa delinkuentziarekin eta kriminalitatearekin lotzen duela; erreferenteak dirudunak izan ohi direla; telebista enpresek bere langileen esplotazioa bultzatzen dutela; eztabaida faltsua, azalekoa ematen dutela sakonera iritsi gabe; estatu-propagandarako makinaria dela –2012an AEBetako presidentetzarako karreran, errepublikarren lehen bueltan, 4 hautagaietatik 3k FOXen nomina zeukaten, aurkezle edo komentarista zirelako: Sarah Palin, Newt Gingrich eta Rick Santorum–; Hiztegia birmoldatzen

duela –terrorismoa, demokrazia, fundamentalismoa definituz–; etsai berrien sortzailea edo gerrarako propaganda sortzailea dela –General Electric-ena da NBC telebista eta Irakeko gerrarekin etekinik gehienak General Electric-ek lortu zituen, gerra hau sutsu defendatu ostean–; krimenak ezkutatzen dituela; albiste zer den eta gehien bat zer ez den definitzen duela; eta batez ere kontsumismoa bultzatzen duela.

ETB aztergai

EAEko audientzietan Telecinco da lehena (%13,1), Antena3 bigarren (%10,3), eta ETB2 hirugarren

Espainiako telebisten jabe nagusiak

- **Berlusconi:** Gehiengoa du Telecinco eta Cuatro eta sozio minoritarioa ere bada Digital+en.
- **Vocento:** BBVA eta Correo dira taldekide eta telebista kate hauek dituzte: Net TV, La 10, TeleDonosti, Bilbovision, Alava7... Viacomekin akordioa dute (MTV, Nickelodeon, Paramount Comedy, VH1, Comedy Central eta Spike), eta haren frekuentziak uzten dizkiote Interconomía eta Disneyri.
- **Prisa:** 1.200 irrati dauzka Europar, AEBetan eta Hego Amerikan. Espainiar Canal+, Localia... 2007an Prisak SOGECABLE erosi zuen, presidente Rodolfo Martín Villa zuena (harreman sindikaletarako ministro izana Manuel Fragarekin).
- **Mediaset:** Telecinco, Cuatro, LaSiete, FactoríaDeFicción, Boing, Divinity, Energy, Nueve, Telecinco HD eta Cuatro HD.
- **Mediapro:** laSexta, Neox, Nova, Nitro, Xplora, laSexta3, Antena 3 HD, laSexta HD, Antena 3 Premium, Antena 3 Internacional eta Gol Televisiónen eta *Público* egunkariaren jabeak. Liberty Acquisition enpresa britainiarrek akzioen %40 dauzka eta enpresa hau Hill & Knowlton publizitate holdingaren parte da. Holding hau ezaguna da 1990eko Irakeko gerraren sustatzailea izan zelako.

(%9,7). ETB1ek %2,2ko audientzia biltzen du, eta ETB3k honen erdia (1,1%). ETB1k %0,0 audientziako tarteak ere badauzka -1.000 ikus-entzuletik behera ez dira audientziak neurtzen-.

Lopezen ustetan, euskarazko lehen katea erdarazkoaren aldean "ahatetxo itsusia" da: "Diru gutxiago inbertitzen da eta betelanez josia dago (kamara ezkutua, su artifizialak, Alcorcon-Eibar futbol partida, pilota partiduak, igandero 2.500 euroko gastua meza santua emateko...). ETB2 audientzia eta publizitate gehiago lortzeko sortu zela gogorarazi zuen. ETB3 ausart hasi zela eta saiakera ona egin zela baloratu zuen baina "hiltzen uzten ari dira, umeentzako bilakatzen". Bere ustez telebista publikoaren arazo handiena da "80ko hamarkadan pentsatu zen eredia, gaur egun arte ia bere horretan mantendu dela ez dela aldatu nahi". Kalitatezko salbuespenak nabarmendu zituen: Mundo.hoy, Mihiluze, Azpimarra, Tumatxa...

Itzali TB eta erdu sarera

Komunikabide euskaldunek bi erronkari aurre egin behar dietela onartu zuen: "Telebista eta multinazionalen monopolioari aurre egitea,

eta euskarazko irakurle-entzule ikusleak sortzea. Ohiturak sortu behar ditugu, egungo herritarren kontsumoan medio espainolak baitira nagusi". Ikus-entzuleak sortzeko gazteak dira klabeak Lopezen ustez, "eta gazteak nagusiki interneten dabilta". Ahuldade ere badiren krisia eta txikitasuna aldaketa ezartzeko indargune ere badirela azaldu zuen: "Txikitasuna abantaila da aldaketei azkarrago erantzuteko, aurrenak izan gaitezke, erreferenteak sortu. Horretarako ausardia eta esperimentazioa behar dugu. Esparru oso bat jorratzeko daukagu, tamalez eta zorionez".

Interneten erreferentetzat dituen medio hauek gomendatu zituen: Google News (jendearen bilaketetan oinarrituz egindako albistegia), CNN Pipeline (hainbat lekutan dituzten kamerak hautatzeko aukera ematen die ikus-entzuleei), BBC (zerga bidez ordaintzen dutenez herritarrek, artxibategi guztia publiko jarria dute), WebTB txikiak (lefigaro.fr adibidez), La Tuerka, Fort Apache eta Cubainformacion (beste telebistek Kubarekiko duen ikuspuntuari erantzuten dio erreportajeekin).

Euskal Herrikoen artean Eguzki Bideoak (urteak baitaramatzate

**Iaz Argiak Youtuben
349.616 bisita izan
bazituen, urte bakarrean
814.612 izatera iritsi da**

dokumental alternatiboak euskarazko azpitoluekin eskaintzen), Ateak Ireki (kazetaritza herritarrean puntakoa delakoan), Topatu, Aiaraldea (komunikazio integrala lantzen duela euskaraz, irrati, aldizkari eta weba batuz), azpitoluak.com, greba egunetan hainbat medioek elkarlanean egindako jarraipen informatiboa eta Kanaldude: "ETB1en *Iparaldearen orena* bost minutuko saioa bukatu zen astean, Kanalduden Mihia Pitz ordubeteko lehiaketa egin dute Zuberoako gazteek, oso bitarteko gutxiarekin".

ARGIAko erronkak

Interneten bideoek duten arrakastarekin bat eginaz, ARGIAren webgunean ere multimedia atala bisitatue-na izateko gertu dago. Honen barnean dokumentalak eta film laburrak dira ikusienak. Iazko EuskaraBildua jardunaldietan ARGIAk emandako hitzaldian Youtuben 349.616 bisita zituela esan zen eta urte bakarrean 814.612ra iritsi da. Bide berean jarraitzea dela helburua azaldu zuen: "Euskaraz copyrightak ez du zentzurik, helburua edukiak zabaltzea delako".

Behin Beranduegi amaituta, ARGIA aste osorako programazio multimedia bat eskaintzeko lanean ari dela azaldu zuen (egun batean WebTB saioa, hurrengoan dokumentalak...), telebistaren modura eskaintza ordenatuz erakargarriago egiteko.

Esperimentazioa dela bidea azpimarratu zuen: "Euskal Herriko Bertso Txapelketan umorezko saioa hasiko dugu (2009an Hitzetik Hultzera egin zen bezala), zuzeneko emisio gehiago egitea aurreikusten dugu, multimedian sail gehiago irekitzea...". Ideia eta proiekturik ez da falta, irakurle eta ikus-entzuleak bidelagun izanez gero. ■



Hizkuntza gutxituen komunitatetako ordezkariak ARGIAN

URRIAREN 11N, Garabide elkartearekin bisitan izan ziren ARGIAren Lasarte-Oriako egoitzan kultura ugartako kideak, hala nola kitxuak, nasak, kaqchikelak, nahuatlak, maiak, movidak, kurduak eta amazighak. Sarrera moduan ARGIAko esperientzia azaldu zieten Pello Zubiriak, Lander Arbelaitez eta Estitxu Eizagirrek. Mahai bueltan bukatu zen bisitaldia, eta hizkuntza gutxituek paperean, webguneetan, sare sozialean eta multimedian baliabide urriekin landu ditzaketen aukerez iritzi trukea egin zuten. Hafed Fates amazighak kontatutako ipuinak eta Marco León Siza kitxuak eginiko gogoetak jarri zuten amaiera. Harremana abiatuta, aurrerantzean bata bestearen lana elikatzeko pozez agurtu zuten elkar bisitariek eta etxeok.



DANI BLANCO

Hizkuntza gutxituetako kideak Garabide elkarteak gonbidatuta iritsi dira Euskal Herrira, kooperazio linguistiko-identitarioa helburu dutela. Jatorrizko Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Titulua egiten ari dira Eskoriatzako HUHEZI fakulta-

tean. Abenduaren 5a arte izango dira hemen. Iaz batik bat Hego Amerikako ordezkariak izan ziren. Aurten gonbidatu berriak ordezkari kurdua eta amazigha dira. Garabide elkar-

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Emakume aurpegi gehiegi

DATU ESTATISTIKOEK —ia beti hotzak eta anonimoak— errealitate sakonak ikustarazten dituzte askotan, zeinak politika batzuekiko ditugun jarrerak birplanteatzen lagundu beharko liguketen. Joan den astean, Hego Euskal Herriko langabeziak datu batzuk ezagutu ditugu, EAEko Lanbidek eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eskainiak. Horiek aztertuz ondoriozta dezakegu langabeziak, prekarietateak, soldata baxuek, pentsio murrizteak, eta ondorioz, desberdintasunek, emakume aurpegia dutela. Ipar Euskal Herriko datuak eskura ez ditugun arren, ez dirudi gainerakotik asko aldentzeko direnik. Emakume aurpegi gehiegi.

Iraileko langabeziaren zifra orokorra 226.893 pertsonakoa izan da, hau da, biztanleria aktiboaren %17,4. Araban (%20,3), Bizkaian (%19,1) eta Gipuzkoan (%16,2) emakumezkoen langabeziaren batez bestekoa %18,3koa da, gizonetzkoena baino hiru puntu gehiago. Nafarroan langabeziaren %52 emakumei dagokie. Soldatei dagokienaz, emakumeek gizonen baino %30

soldata baxuagoa jasotzen dute. Desberdintasun hori are handiagoa da pentsioetan, %40ra ere irits daiteke eta. Azkenik, kontratazioetan ere diferentzia handia dago emakume eta gizonen artean. Irailean emakumeek kontratu gehiago lortu dituzte —33.426 kontratu, gizonen lorturiko 30.349 kontraturen aldean—, baina horien erdiak baino gehiago partzialak dira, kalitatez kaskarrak eta lanaldi laburrekoak. Sinaturiko kontratuen %57k 29 egun baino gutxiago iraun zuen.

Testuinguru honetan, emakumeentzako diskriminazio positiboa bultzatzen duten politikak behar ditugu, emakume eta gizonen artean berdintasuna lortu nahi badugu behintzat. Ekonomian, lanean eta jendartean politika berriak behar ditugu emakumearen alde. Eta arlo guztietan praktikara eramane behar dira. Horrela baino ez dugu lortuko aurpegi bakarria izatea: pertsonarena.

Juan Mari Arregi



elhuyar HIZTEGIEN ARO BERRIA

- ELHUYAR HIZTEGIA
- ELHUYAR HIZTEGI TXIKIA
- ELHUYAR OINARRIZKO HIZTEGIA

Euskara/Gaztelania
Castellano/Vasco

Elhuyar hiztegien 4. edizioa eta **hiztegiak.elhuyar.org** webgune berria.
BERRITZAILEA, IREKIA, GUZTIONA.



elhuyar hiztegien edizio berria

4.000 sarrera gehiago, 91.000 guztira. Euskararen eta gaztelaniaren lexikoan izan diren azken berrikuntzekin. Espezialitate-arloetako lexiko berriak.

→ www.elhuyar.org/denda webgunean EROSI

hiztegiak.elhuyar.org

Bilaketa-aukera berriak. Hitzen ahoskera entzuteko aukera. Hiztegien etengabeko eguneraketa.

→ Elhuyar hiztegi elebidun guztiak, DOAN klik batean



Naomi Kleinen deia: klimaren krisia jarri ezkerren ardatz

Kanadako autogintzako, energiako eta papergintzako sindikatuek elkartuta sortu Unifor sindikatu handiaren lehen biltzarrera konbidaturik, Naomi Kleinek aldarrikatu du mugimendu sozialek eta sindikalistek elkarlana estutu behar dutela, ardatz nagusi klimaren aldaketa edukiko duen ezkerreko agenda alternatiboaren inguruan.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

“ALTERNATIBA” EKITALDIAREN barruan Baionan urriaren 6an entzun ahal izan ziren mahai-inguru ugarietako batean, Iñaki Antiguedad eta Joseba Azkarragaren ondoren, Amaia Muñoa ELA sindikatuko idazkari nagusi ordeak Florent Marcellesik haientzako egin ikerketa aipatu zuen.

Entzule zirenetako bat baino gehiago harrituko zen entzunda Euskal Herriko sindikatuaren beterranoa den ELAk aintzat hartzen dituela ekologia politikoan ezaguna den Marcellesik *Ekonomiaren trantsizio ekologikoa. Zergatik? Zertarako? Nola?* liburuxkan idatziak. *Alternatiba* osoaren izpiritua biltzen baitzuen mahai-inguruaren tituluak, “*Euskal Herriaren desafioak birmoldaketa ekologikoa, elikadura subiranotasuna eta trantsizio energetikoaren aurrean*”, Muñoak garbiki aitortu zituen sindikalismo klasikoaren zailtasunak langileen interesen defentsako orain arteko agenda lotzeko.

Aste gutxi lehenago, irailaren 1ean, autogintzako, energiako eta papergintzako zentralak elkaturik Unifor izen berriarekin Kanadako sindikatu handiena sortu dutenek lehen biltzarrera deitua zuten Naomi Klein, globalizazio neoliberalaren ikertzaile eta kontrako ekintzaile ezaguna dena. Honek titulu bikoitza ipini zio mintzaldiari: “*Kli-*

maren krisia eta ezkerreko agenda bateratu bat” eta “*Zergatik sindikatuek bat egin behar duten klimaren inguruko borrokarekin*”.

No Logo eta *The Shock Doctrine* liburuaren eta *The Take* dokumentalaren egile arrakastatsuak sorterri duen Kanadako egoeraz egin zituen arren erreferentzia asko, mundu osoko langileei interesatzeko moduko aldarrikapena egin zuen. Hona laburpena.

Azken 35 urteotan multinazionalak krisi guztiak –ekonomikoak, naturaren hondamendiak, gerrak– probestu dituztelarik beren interesen mesedetan, aurre egiteko ez da aski izan jendeak logika horren hariak ezagutzearekin. Logika horren kontrako mobilizazioak ere ez diren moduan: sortu, indartu, itxaropenak piztu eta desagertu egiten dira. Zergatik?

Saiatzen ari garelako 30 urteotan jendarteak eta langileen eskubideak astindu dituen gerrak utzitako hondarrak organizatzen. Kalera atera diren gazte eta ez hain gazteak neoliberalismoak antolatutako gerra horren umeak dira.

Mugimendu sozial berriek gauza asko ekarri dute, jendetza handiak mobilizatzeke ahalmena, benetako aniztasuna, asmo handiei ekiteko konpromisoa, demokrazia sakoneko antolakuntzak. Baina mugimen-

No Logo eta *The Shock Doctrine* bezalako liburu txit salduen eta *The Take* dokumental arrakastatsuen egile famatua baino askoz gehiago da Naomi Klein ezkerreko mugimendu alternatiboetako jendearentzako. Eztabaida eta mobilizazioetan parte hartu zalea baita, globalizazioaren kontrako bezala giza eskubideen aldekoetan. *Toronto City Life* gunetik hartutako irudian, Klein herritarrei kamioneta batetik mintzo zaie Kanadako hiri hartan 2010eko ekitaldi batean: bi gurasoen aldetik jatorri judua duen ekintzaileak parte hartu zuen Israelen kontsuletxearen aurrean Tel Avivgo gobernuak palestinarrei egiten dizkien desmasiak salatzeke, *Free Gaza* mugimenduaren alde. “Ni ez naiz ekologista, justizia ekonomikoaren aldeko ekintzailea baizik”, diotse sindikalistei Toronton. “Merkataritza Librearen Itunaren kontra nago ez izurdeak kaltetzen dituelako, jendeak eta demokrazia kaltetzen dituelako baizik”.

duok behar dituzte langileen sindikatuak, hauen historia erradikala, indar instituzionala, aingura moduan mugimenduari egonkortasuna eman diezaioten. Antolatzeke daukaten esperientzia ere bai.

Sektore publiko indartsua behar

Baina korporazioek ezarri duten austeritatearen kontra herritarrek mugitu arren, oraindik zerbait falta zaio mugimenduari, Naomi Kleinen aburuz: ez dugula benetan sinesten posible dela agenda neoliberalaren orde bestelako bat erakitzea. Gazteek ez baitute ezagutu arau gabetzea, pribatizazioa eta murrizketa ez den ezer.

Defenditzen besterik ez dakigu, erakitzen ez. Baina haien gezurrei uko egitetik haratago geure egiak behar ditugu. Ez da aski haien proiektua arbuiatzea, gure proiektua behar dugu.

Elite ekonomiko eta politikoak *extractivistak* dira. Jokatzen dute mugarik ez balego bezala, ez planetari lehengaiak erauzteko, ez gizartearen funtzionamenduan, ez langileen gorputzek soportatu dezaketen zaman. Eliteentzako eskulana lehengai bat da, petrolio bezala, ahalik eta gehien ustiatu behar dena, axola izan gabe alboko kalteez, izan osasuna, familia, jendartearen egitura, giza eskubideak.



ak behar ditugu lehendik dauzkagunak hobetzeko. Klimaren borroka ez ditu langileak zerbitzu publikoen borrokatik aldentuko, alderantziz baizik.

Milioika lanpostu berri behar dira politika horretan. Dagoeneko ekonomiaren atal handiak dira *low-carbon*, karbono isuri urrikoak, sarritan okerren ordainduak. Horiek murrizketaz zigortu ez, soldata hobez sustatu behar dira. Zaintzaileak, hezitzaileak, osasun zerbitzuetakoak, zerbitzu publikoetakoak... horietatik beharko dira gehiago.

Nola finantzatu? Eliteek erakutsi dute dirua badagoela, bankuak zulotik ateratzeko erabili dute. Dirua justu bankuetan eta klimaren krisia eragiten duten konpainia handien esku dago. Merkataritza librearen araurik gabeko globalizazioa sustatu dutenak, bateko eta besteko industria-gabetzeak dakarren langabezia gain, klimaren krisiaren errudun nagusietakoak dira.

Beraz, aplikatu dezagun *the polluter pays* araua, kutsatzaileak ordaindu behar du: karbono isurtzaileentzako zergak, salerosketa finantzazkoentzako zergak, korporazioen etekinentzako zergak.

Naomi Kleinek dio, amaieran: industria kutsatzaile zahar bat ixten diguten hurrengo aldian, ez dugu konformatu behar. Ez eskatu baimenik. Enpresa okupatu dezagun, geureganatu, kooperatiba bihurtu, jarduera iraunkorrago bat bilakatzeari ekin. Klimaren krisia tresna dugu: hartu eta erabili dezagun, ustez ezinezkoa dena eskatzeko. ■



Kontaketa horren aurrean jartzeko narratiba sendoena klimaren aldaketak ematen digu. Gaurko eredu ekonomikoak ez bakarrik astintzen ditu langileak, herriak, zerbitzu publikoak eta babes sozialerako sareak. Planeta bera sostengatzen duen bizia astintzen du, bizirik izan dadin baldintzak suntsitzen.

Klimaren aldaketa ez da 'gai bat' besteen zerrendari gehitzekoa. Zibilizazioaren garrasia da. Gaingintza ezin diren mugak badiarelako. Transizioa egin beharra daukagu eta oraintxe.

Sindikalista asko deseroso egon daitezke eztabaida honetan, autogintzan, meatzaritzan edo karbono isuri handiko sektoreetan ari direlako. Ez diete klimaren krisia laga

behar ekologistei, sindikalistek barneratu behar dute gure gizartea aberastasunera eraman duen iraultza industrial bera dela orain naturaren sistema guztiak hankaz gora jartzen ari dena.

Kliman zentratzeak ez dakar gainerako borroka uztea. Aitzitik, klimaren krisiak areagotzen du austeritateari aurre egin beharra, datozen hondamendiak gaitzitzeko zerbitzu eta azpiegitura publiko sendoak beharko direlako.

Sektore publikoa biziberritu beharra daukagu. Karbono ixuriak gutxiagotzekotan, garraio publiko garbiagoak behar dira edonon. Etxegintza aldatu, energiaren eraginkorrakoa izan dadin. Ez ditugu azpiegitura berriak behar, inbertsio-





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira



DANI BLANCO

Bi urte

ETA-k bere jarduera armatua bukatu zuela iragarri zuen 2011ko urriaren 20an, Euskal Herriko mende Erdiko historiari amaiera emanez. Amaiera bat behintzat, bere jardunaren ondorioak bizi-bizi baitaude oraindik eta eragin-dako zaurien ondorioak erabat irekiak. Bi urte iragan direnean, ondorio batzuk behintzat atera litezke.

Bat, sufrimenduaren atala erabat zabalik dago oraindik. Zauri zaharrak konpondu barik dira, ETAk ez ditu biktima berriak sortzen eta Estatuak bai, funtsean “dena da ETA” bizi-bizirik mantentzen duelako. Pertsonen giza eskubideekin kezkarik duenak, arduratua beharko luke gai honekin, pertsonen minarekiko ardura zintzoa bada behintzat.

Bi, suposatzekoa zen bake prozesua eratzea gaitza izango zela, baina zerbait gehiago egingo zela ere bai, poliki bada ere. Urratsik ez denez ikusten, honek etsipena sortzen du, batez ere ezker abertzaleko eremuan eta, beste neurri batean, bakea oraindik gauzatu gabe ikusten duen euskal gizarte esparru zabalean ere bai. Irtenbide bakarra dago, ordea, bultzatzen jarraitzea, euskal gizartean bake nahia oso sustraituta dagoelako, eta handik edo hemendik nahi hori aterako delako, lehenago ere gertatu den moduan. Krisi ekonomikoak, gainera, bigarren plano batera eraman du gatazkaren konponbidearen gaia.

Hiru, egoera politikoa finkatu dela dirudi, baina oraindik ez guztiz. Mahaiaren lau hanka ospe-tsua hor dira, gutxi gora-behera ohiko gizarte indarra ordezkatzeko, baina abertzaletasunaren gorako

joerarekin eta alderdi espainiar zaleen beherakadarekin, baita ideien esparruan ere. Ikusi behar ea joera hori mantentzen den edo ez. Seguruenik EH Bilduren garapenak markatuko du asko hori, azken bizpahiru urteetan bezala. Barne kohesioari eutsi eta ezkerreko soberanismoa XXI. mendeko parametroetara egokitzen asmatzen badu, lehia gogorrean jarraituko du EAJrekin.

Ohiko jardun instituzionalerako, ordea, badirudi alderdi tradizionalen pisua nagusituko dela, batez ere EAEn EAJk eta PSE-EEk egin duten itunarekin. Nafarroan alternatibak PSNren esku jarraitzen du oraingoz, baina dirudienek, gero eta gutxiago.

Aitzakiak nahi dituenak, gero ere esango du armak ez direla nahiko, ETAk desagertu egin behar duela, bestela ez dagoela ezer egiterik

Kataluniako bilakaerak ere eragin dezake euskal gizartean, bai mugimendu soberanistak har ditzakeen irakaspenengatik eta baita ere Estatuaren egituretan izan dezakeen eraginagatik.

Ezin da ahaztu, halaber, krisia dela sasoi honetako aldaketa akuitu nagusia eta ikusi beharko dela horrek zein neurritan eragiten dion euskal gizartean oraindik garrantzi handia duen ohiko alderdien eskemari.

BAKE PROZESUA oso geldo badoa ere, geldo-azkar sentipen, zantzu eta gertaerak sarri tartekatzen dira. Eusko Legebiltzarreko Bake eta Elkarbizitzarako Lan Taldearen ezintasunak; Herriaren aurkako sarekada; Donostiako Bakearen

Aldeko Alkateen Konferentzia emankorra; Jaurilaritzaren Bake eta Bizikidetzaren Planak AEBetan izandako harrera ona; hirugarren Herri Harresia Iruñean Luis Goiñiren atxiloteta saihesteko; Segi eta Herriko Tabernen makroepaiketen hasiera Auzitegi Nazionalan...

Eta egoera borobiltzeko, datozen asteetan izar bilaka daitezkeen bi gai: kartzelak eta armak. Bate-tik, aipatzen da Parot doktrinaren ebazpena heltzeaz dela Estrasburgotik. Urriaren amaiera aldera etor liteke –21ean aipatu da– eta leku askotan zabalduta da Estrasburgok berretsi egingo duela doktrinaren aurkako bere epaia. Batzuen ustez, Estrasburgoko Auzitegia presionatzeko bultzatzen ditu filtrazioak


PPk eta, besteen aburuz, kontrako epaia aurreikusiz, Espainiako sektore eskuindarren erreakzioa baretzeko.

Eta oraingoz azkenik, bake prozesuan azken bi urteetan ETAk eman lezakeen urratsik garrantzitsuena ere hor dago: armak entregatzen hasi litekeela bolo-bolo dabil udaraz geroztik. Hala bada, bultzada garrantzitsua eta beharrezkoa emango lioke bake prozesuari. Aitzakiak nahi dituenak, gero ere esango du armak ez direla nahiko, ETAk desagertu egin behar duela, bestela ez dagoela ezer egiterik. Baina armak entregatzearena eman beharreko urratsa da, sinbolikoki indar handia duelako eta desegite prozesu bati begira, ikusgarria eta esanguratsua ere badelako, bai euskal gizartean eta baita nazioartean ere. Nola eta abarrekoak garrantzitsuak dira, baina bigarren mailakoak. Nahi badu, ETAk topatuko bidea. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Bertsolari Txapelketa Nagusia



2 harpidunentzat
bina sarrera

Urriak 26, larunbata 17:30ean
Arroyo I pilotalekua
Oion (ARABA)

www.bertoazole.com

1

EUREKA! zientzia museoa



3 harpidunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

2

Bilboko Euskal Museoa



3 harpidunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

3

Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa



3 harpidunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

4

Illimani



2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2385. Argia)

IRIARTE JAUREGIA

- M^a Angeles Azpiroz Harrizurieta (Barañain)

BETSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

- Hendaia
- AED Elkarte (Arrasate)
- Alberto Los Arcos Fernandez (Aras)

BETSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

- Altasu
- Aitzol Goikoetxea Goldaraz (Hondarribia)
- Jaione Goienola Guarrotxena (Galdakao)

IKASLE ABERTZALEAK 25 urte CDa

- Ibon Manterola Garate (Azkoitia)
- Juan Jabier Iturralde Maisterra (Iruñea)
- Maria Isabel Aranburu Garcia (Arrasate)
- Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa (Gernika-Lumo)
- Getxoko Euskara Zerbitzua (Getxo)

KIROLAZ BADAKIT

- Jabier Agirre Lasarte (Donostia)
- Xabier Zubizarreta Lasagabaster (Arrasate)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

gunea


argia

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea





Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

NOLAKO AUTOBUS ZERBITZUA NAHI DUZU?

Gipuzkoako Foru Aldundiak zurekin batera hobetu nahi du zerbitzua, eta horretarako 56 herritan bilera irekiak antolatu ditu. Internet bidez ere egin dezakezu zure ekarpena: www.garraioahobetzen.net.

PARTE HARTU ETA IRABAZI

Parte-hartzaile guztien artean Mugi/Lurraldebus txartela kargatzeko 20 euroko bonoak zotz egingo ditugu.